

GAIA: BIZI TOKI • ESPERIENTZIA: BASAJAUNEKIN JOLASEAN EUSKARAZ •  
ESPERIENTZIA: IPUINEN ASTEA • GALDEIDAZUE: YRJÖ ENGESTRÖM  
• LACTURALE • ATZEKO ATETIK: JUAN LUIS LANDA

**hh**  
**hik hasi**

**164**

**4 EURO** • 2012KO URTARRILA EUSKAL HEZIKETARAKO ALDIZKARIA



***ELKARRIZKETA***

**Jon Sarasua Maritxalar**

**MUko irakaslea, sortzailea eta ikertzailea**



8 URTETIK  
AURRERA

## IRIBARREA ZABALTZEKO IPUINAK

JUAN KRUZ IGERABIDE  
JOKIN MITXELENA

*Irribarrea zabaltzeko ipuinak* ipuin-liburua, xarmaz eta magiaz beteriko hamar ipuinek osatzen dute. Hauek dituzue honietako batzuk: sudurra okertzen zuen aitonarena, haur aurreratuak baino joaten ez diren eskolarena, Lurraren ardatza aldatu zuen haur eskimalarena...



8 URTETIK  
AURRERA

## ZABALEKO TXORIMALOA

JUAN LUIS ZABALA  
MAITE GURRUTXAGA

Iker herri handi samar batean bizi da bere amarekin, eta eskola etxetik urrun samar dagoenez, amak eramaten du egunero kotxez, harik eta erabakitzen duen arte, Ikerrek eskolara oinez joan behar duela.

10 URTETIK  
AURRERA

## NIRE AITA IKUSEZINA DA

JULEN GABIRIA  
PATXI GALLEGO

Elene neska azkar eta alaia da, anaia txiki bat jaio berri zaiena. Denak daude pozik eta apur bat urduri aldaketekin, baina Elenek badu kezka bat ere: aita ikusezina bihurtu da...



12 URTETIK  
AURRERA

## MOTZERRA

XABIER MENDIGUREN  
AITZIBER AKERRETA

Tarttaloren herri-ipuina, edo Polifemoren mito klasikoa, terrorrezko film baten gisa kontatua: bi gazte, basoan galduta, etxe bakarti batera iristen dira, eta begi bakarreko gizon beldurgarri batek zabaltzen die atea...



**XAGUXAR BILDUMA ERABERRITUA,  
INOIZ BAINO KOLORETSUAGO,  
BETI BEZAIN DIBERTIGARRI**

**elkar**

[www.elkarargitaletxea.com](http://www.elkarargitaletxea.com)

# aurkibidea



**8**  
gaia

## BIZI TOKI

Bizi-proiektu bat da Bizi Toki, Behauzeco (Nafarroa Beherea) Goitia baserrian ireki berri duten eskola. Guraso talde batek seme-alaben heziketa, Frantziako hezkuntza-sistemari esleitu ordez, bere esku hartu nahi izan du.



**16**  
elkarrizketa

## JON SARASUA

Mondragon Unibertsitateko Humanitate eta Zientzien fakultateko irakasle da. Era berean, arlo asko jorratutakoa da. Sortzaile, ikerlari, bertsolari eta idazle ere bada.

**5** editoriala

**6** kronika

**8** gaia

## BIZI TOKI

IKASIZ BIZI, BIZITZEN IKASIZ.

**16** elkarrizketa

**JON SARASUA MARITXALAR.**

**27** esperientziak

Basajaunekin jolasean euskaraz.

**30** ekarpenak

*Ipuinen Astea* Hernaniko Langile ikastolan.

**32** galdeidazue

Nola jokatu beharko genuke eskolan sormena lantzeko?  
Yrjö Engeström

**35** berriak

**40** nora joango gara?

Lacturale.

**42** Atzeko atetik

Juan Luis Landa.

Argitaratzailea: **XANGORIN** Errekalde hiribidea, 59. Aguila eraikina, 1. solairua. 20018 DONOSTIA GIPUZKOA. Tel: 943/ 371 408 ; [www.hikhasi.com](http://www.hikhasi.com); Posta Elektronikoa: [hikhasi@hikhasi.com](mailto:hikhasi@hikhasi.com); Lege Gordailua: SS-1001/95. ISSN: 1135-4690. Erredakzioa: Joxe Mari Auzmendi, Ainhoa Azpiroz, Ainara Gorostizu eta Arantxa Urbe. Erredakzio batzordea: Nerea Agirre, Izarne Garmendia, Miren Guilló, Mari Karmen Irastorza, Pello Jauregi, Iñigo Larrañaga, Aritz Larreta, Josi Oiarbide, Maite Saenz, Xabier Sarasua. Aholkulariak: Nerea Alzola, Abel Ariznabarreta, Felix Basurko, Begoña Bilbao, Mariam Bilbatua, Aines Dufau, Luis Mari Elizalde, Lore Erriondo, Guillermo Etxeberria, Gurutze Ezkurdia, Idoia Fernandez, Xabier Isasi, Irene Lopez-Goñi, Izaskun Madariaga, Karmele Perez Urroza, Amaia Vazquez, Lontxo Oihartzabal, Fito Rodriguez eta Matilde Sainz. Administrazioa: Arantxa Goiburua. Diseinua: Graf!k. Maketazioa: Xangorin. Inprimategia: ANTZA S.A.L. Azaleko irudia: Hik Hasi. Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak onetsia (2011-12-14). Kopurua: 3.600 ale.

hik hasiko artikuluez edonon eta edonoiz balia zaitzake. Kasu horietan iturria aipatzea eskertuko genizuke. hik hasik ez ditu bere gain hartzen bertan plazaratutako iritziak ezta bat etorri ere derrigorki haiekin.

[www.hikhasi.com](http://www.hikhasi.com)

EUSKO JAURLARITZA

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE  
ETA IKERKETA SAILA



GOBIERNO VASCO

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,  
UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN

Euskarak merezi du,  
hezitzaileentzat ona da  
eta HIK HASIk behar du.

Harpidetu eta  
**HIK HASI** egitasmoa  
bermatu



**hik hasi**  
zure parte-hartzea  
ezinbestekoa du,  
harpide zaitez!  
50 euro urtean

Prezio horren barruan  
10 aldizkari, ale monografikoak  
eta Euskal Herriko baliabide  
pedagogikoen gida.  
Horrez gain, prezio bereziak  
Udako Topaketetan eta  
argitaratzen ditugun gainerako  
materialetan

**hik hasi**ren harpidedun izan nahi dut, urtean 10 ale eta atera daitezkeen ale bereziak etxean jasoz

Izena	1. Deitura
2. Deitura	Telefonoa
Helbidea	Posta Kodea
Herria	Herrialdea
Lantokia	Lantokiaren herria
IFZ-NAN	Posta elektronikoa

<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>
----------------------	----------------------	----------------------	----------------------	----------------------	----------------------	----------------------	----------------------	----------------------	----------------------	----------------------	----------------------	----------------------	----------------------	----------------------	----------------------	----------------------	----------------------	----------------------	----------------------

Entitatea

Sukurtsala

K.D.

Zenbakia

Sinadura

**hik hasi** Euskal heziketarako aldizkaria  
Errekalde hiribidea, 59 Aguila eraikina, 1. solairua  
20018 DONOSTIA. GIPUZKOA  
Tel: 943/37 14 08 Faxa: 943/37 21 54

HARPIDETZA SARIAK  
(BEZ barne) 50 euro

# editoriala

## urtarrila

### **Euskal hezkuntza komunitateak inoiz baino batuago egon beharko luke**



**Bitarteko gehiago behar ditugu: gertuagoko gestioa lortzea, parte-hartzea erraztea, Hezkuntza Sistema demokratizatzea eta abar. Izan ere, eskola komunitateak era sistematikoan parte-hartzen duenean, arlo guztietako emaitzak hobetzen dira.**

Zaila da, bai, eskola on bat egitea.

Egitura administratibo zaharkituari krisi ekonomiko gehitu zaio, eta, horri, alderdikeriaren "gaixotasuna" erantsi. Espainian gobernu berria jarri orduko, hezkuntza osoan eragingo duen lege organiko berria aurkeztu du: aurrekoak egindakoa hankaz gora jartzen da Madrilen. Protagonismo kontua al da? Ideologiak eragindakoa? Europatik eratorritako irizpideen gauzatzea? Garbi dagoena da ez dagoela etorkizuna antolatzeako akordio estrategikorik, eta, gobernatzen duenaren esku geratzen dela Hezkuntza Sistema kudeatzea. Horretan guztietan, non geratzen dira herritarrak? Nork izaten ditu kontuan ikasleak, gurasoak, hezkuntzako langileak? Funtsean, hori guztia ez al da demokrazia eza?

Mariano Rajoi jaunak, Madrileko gobernu berriaren buruak, egindako adierazpenek kezka sortu digute: "Gaztelaniaren ezagutza, eta lurralde nazional guztian jakintza komun bat-

zuk egon behar dira". Zer esan nahi du horrekin guztiarekin, gaur egun, horrela bada dagoeneko? Ikasle guztiak ez al dira, bada, gaztelania jakinda ateratzen eskolatik? Zertarako ezartzen da "Selektibitatea", edukiak kontrolatzeko ez bada? Aurrera begira, estatu osoko ikasleak oraindik ere gehiago uniformizatzeko helburua du?

Gasteizko Hezkuntza Sailak UEUri egin dion dirulaguntzaren ukazioa ere oso adierazgarria da. Euskal hezkuntzarentzat, murrizketak, eguneroko ogia bihurtu dira.

Hala ere, etengabe lanean diharduen herri bat da gurea, inizatiba duten herritarrez osatua, autoeratzen dakiena, helburuak lortzeko langile fina dena... Nola lortu, bestela, hain egoera zailetan, orain arteko guztia?

Gaur egun, ezartzen ari diren antolaketa administratiboak oso zentralistak badira ere, Euskal Herriko hezkuntza komunitatea gai izan da, bere eskolako lanez gain, hezkuntza hobetuko

duten proposamenak adosteko eta plazaratzeko: 1. Ikasle euskaldun eleaniztunak sortzen, 2. Euskal Curriculum, 3. Hezkuntza Akordioa, eta abar.

Traba guztiei aurre eginez, Herri honek bidea egiten jakin izan du. Eta, egite zail horrek, ongi prestatu gaitu aurrera begira, ez izan zalantzarik! Horrez gain, interes partikularrei soilik kasu egitetik, Herri ikuspegia izaterako urratsa egingo bagenu, oso indartsuak izango ginateke.

Ibilbide interesgarri hori egiteko, bitarteko gehiago beharko ditugu: gertuagoko gestioa lortzea, parte-hartzea erraztea, Hezkuntza Sistema demokratizatzea eta abar. Izan ere, eskola komunitateak, era sistematikoan parte-hartzen duenean, arlo guztietako emaitzak hobetzen dira. Hori jakinda, zergatik jarraitu eskola hobetzeko zailtzen duen bidea?

Kalean esaten den gisan: "Nork agindu du mundu kolore bakarra, egunero irten abal bada ostadarra!".

# kronika

Hezkuntza alorreko sindikatuek grebara deitu zituzten Lapurdiko, Nafarroa Behereko eta Zuberoako hezitzaileak. Sindikatuen haserrea piztu duena Frantziako Hezkuntza Nazionalak ezarri nahi duen irakasleen ebaluazio sistema berria da. Orain arte akademiako ikuskaria arduratzen zen irakasleak aztertzeaz, eta azterketa horren emaitzaren arabera finkatzen zen irakasleen ordainketa. Erreformaren ondoren, ikastetxeko zuzendaria izango da azterketa hori egingo duena.

Hiru lurraldeetako eskola publikoetako lehen mailako irakasleen % 15 inguruk egin zuen bat grebarekin. Grebaz gain, hainbat mobilizazio egin zituzten irakasleak. Tartean, Baionako geltokitik Baiona Ttipiko Paul Bert lizeora egin zuten manifestazioa. Manifestazioaren amaieran, lizeoko sarrera blokeatu zuten. Manifestazioan 250 lagun inguru bildu ziren.



## Eskolan euskaraz ikasi nahi dutelako itxita

Sortzen-Ikasbatuaz elkarteak eta herriko guraso talde batek deituta itxialdia egin zuten Mañeruko (Nafarroa) eskolan euskal hezkuntza aldarrikatzeko.

Nafarroako Euskararen Legea onartu zenetik 25 urte bete diren honetan, herritarrek euskaraz ikasteko duten nahia agertu nahi zuten. Izan ere, lege horren arabera, Mañeru eremu erdaldunean kokatuta dago. Ondorioz, bertako haurrek ezin dute euskaraz ikasi eskolan.

Itxialdia antolatu dutenek adierazi dute, herritarren gehiengoak euskaraz ikasi nahi duela eta hala adierazi dutela. Vascuencearen legeak, ordea, ez du horrelakorik onartzen.

Nafarroako Gobernuak herriko eskola itxi zuen eta herriko ikasleak beste herrietako eskoletara bideratu zituen.

Antolatzaileen arabera, Euskararen Legea “iraganean oinarritutako legea” da, eta “euskarak ez dituen mugak ezartzen ditu, gainera”. Legeak ezartzen dituen oztopoen gainetik aldarrikapenari eusteko asmoa agertu dute gurasoek: “Gizarteak behin eta berriz adierazi du euskaraz bizitzeko eskubi-dea duela”.

Asteburua iraun zuen itxialdian kultur eskaintza zabala eskaini zuten eta horiek antolatzeko Mañeruko Udaren laguntza izan zuten. Porrotx pailazoa, herri kirolak, joaldunak, txalapartariak, poesia emanaldiak, karaokeak, herri bazkariak, trikipoteoa, musika kontzertuak, dantza taldeak, Ixabel Millet ipuin kontalaria, hezkuntzako eta euskalgintzako eragileak, alderdi politikoak eta abar izan ziren itxialdian parte hartu zutenak, besteak beste. Guztiak ere, aldarrikatu nahian Euskararen Legea gainditu eta herritarrek eskolan euskaraz ikasteko duten eskubi-dea, eta herritarren gehiengoak jada adierazi duen borondatearekin bat eginez.

Itxialdiko azken egunean, bertan zirenek bilkura bat egin zuten, eta beste hizkuntza-politika bat eskatu zuten: haurrek euskaraz ikasteko duten eskubi-dea bermatuko duen beste hizkuntza-politika bat. Eragile guztiek bat egin zuten Mañeruko adierazpenarekin.

"Haur alferrik ez dago, ikasteko arazoak dituzten haurrak baizik; eta okerrak antzematea da kontua".

Jorge Catalán



## Murrizketen aurrean irudimena

Irudimena estutu behar izan dute Nafarroako hezkuntza arloko sindikatuek Nafarroako Gobernuak hezkuntza arloan ezarri dituen murrizketei aurre egiteko. Hala, Nafarroako herritarrek kalera atera ziren berriro LAB, EILAS, CCOO, ELA eta CSIF sindikatueta-ko hezkuntzako ordezkariak egin zieten deiari erantzuteko.

Antza, aurtengo aurrekontuen arabera, guraso elkarteek 141.000 euro jasotzeko behar zituzten, baina ez dute diru hori jaso. Herritarrek Nafarroako Parlamentuaren eta Nafarroako Gobernuaren egoitzak txanponetz lotu zituzten. Txanponak, guraso elkarteentzako dirua lortzeko ziren.

### Non da eskola berria?

Erronkariko (Nafarroa) eskola duela 130 urte eraiki zen, Julian Gaiarre

kantari ospetsuak emandako diruarekin. Nafarroako azken kontseilariak Erronkarin eskola berria egiteko asmoa agertu dute eta Erronkariko Udalak lurrak erosi eta kalifikazioa aldatu die eskola berria egin ahal izateko. Hala ere, ez dira hasten eskola berria eraikitzen. Herritarrek elkarretaratzea egin zuten Hezkuntza Departamenduari emandako hitza betetzeko eskatuz.

### Hizkuntza-normalizazio eske

Ikasle Abertzaleek (IA) manifestu bat igorri zioten Nafarroako Hezkuntza kontseilariari Nafarroako hezkuntza publikoan hizkuntza-normalizaziorako neurriak hartzeko eskatuz.

Ikasleek, gainera, aurkeztutako idatzian hiru hilabeteko epea eman diote kontseilariari: "Neurririk hartzen ez badu, ikasleok mobilizazioetara itzuliko gara" ohartzarazi diote.

### Sindikatuaren zereginak

LAB, ELA, EILAS eta CCOO sindikatuek ez dute parte hartu Nafarroako Hezkuntza Departamentuak deitutako bi lan-batzordeetan. Haien ustez, "negoiazio kolektiboari soilik dagozkion gaiak" tratatu nahiak, "negoiazio kolektiboari iruzur" egitea litzateke: irakasleen erantzukizuna eta formazio plana, lanaldi eta ordutegiaren arautegia, kontratazio eta ordezkapenen kudeaketa landu nahi zituzten batzordeetan.

Hautsak harrotu ditu Kristau Eskolak itunpeko sarearen finantzaketari buruz esandakoak. Kristau Eskolako zuzendariak Eusko Legebiltzarrean egindako agerraldian baliabide publikoak modu "parekideago" batean banatzeko eskatu zuen, "ikasle guztiek beren beharren arabera aukerak eduki ditzaten, edozein saretan daudela ere". Aurkeztu zuen txosten baten arabera, itunpeko sareak eta sare publikoak antzeko ikasle kopurua duten arren, publikoak jasotzen du hezkuntzari zuzendutako aurrekontuen % 69. Adierazpen horiek Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza sailburuaren haserrearen piztu zuen, eta hezkuntza publikoak eta itunpekoak izaera eta funtzio desberdinak dituztela adierazi zuten. Itunpeko sarearen finantzaketa egokia zela esan zuen eta eskola publikoaren aldeko "apustu tinkoa" berretsi zuen. Itunpeko hezkuntza sarea garrantzitsua dela, baina eskola publikoa "ezinbestekoa" dela gaineratu zuen. Era berean, adierazi zuen ez duela "konfrontaziorik" nahi sare publikoaren eta itunpeko sarearen artean.

# GAIA

## Bizi Toki

*Ikasiz bizi, bizitzen ikasiz*







**Bizi-proiektu bat da Bizi Toki, Behauzeko (Nafarroa Beherea) Goitia baserrian ireki berri duten eskola. Guraso talde batek seme-alaben heziketa, Frantziako hezkuntza-sistemari esleitu ordez, bere esku hartu nahi izan du, eta, horretarako, haurra bera bihurtu dute bere bizitzako eta ikasketa-prozesuko subjektu protagonista. Lehen Bizi Toki da hau, baina, aurrera begira, gehiago sortzeko helburuarekin abiatu da.**

## Ikastetxe ideiala hatzekin ukitu nahirik

Lehen Bizi Toki ireki aurretik, bi urte eta erdi baino gehiago pasatu dituzte beren seme-alabei eskaini nahi dieten hezkuntza-ereduaz irakurtzen, hausnartzen, gogoeta egiten, eztabai-datzen. Abiatu zirenean, kezka bera zuten gaur Bizi Toki sortu duten hamar bat gurasok: “Ez genuen utzi nahi estatuaren esku, instituzio baten esku, seme-alaben heziketa, guk ezagutzen ez ditugun programa batzuei jarraitzen baitiete, 25 hurreko gela itxietan; geuk hartu nahi izan dugu geure seme-alaben heziketaren ardura”. Eta abiapuntuko ideia horrexek definitzen du, gaur egun ere, Bizi Tokiren mamia: “Guraso ok berreskuratu egin dugu gure hurren heziketaren erantzukizuna”.

Gaurko Bizi Toki ireki aurretik, eskola idealaz hausnartu zuten gurasoek, ia hiru urtean: “Modu librean hasi ginen gogoeta egiten, ametsari bide eginez... Eta, berehala, ikusi genuen hurren heziketari buruzko gogoeta ezin genuela

bereizi jendarteari buruzko gogoeta orokorragotik, eta partekatzen ditugun balioak zehaztera eraman gaitu horrek”. Abiapuntuko ideia, alabaina, ez zen eskola bat sortzea, baizik eta hurren beharrei erantzutea.

Baina, azkenik, eskola bat egin dute, ikasteko eta bizitzeko den leku bat, justuki: Bizi Toki. “Bizitza- eta ikasketa-prozesua ez ditugu bereizten, eskolan bizi egiten dira, eta bizitzan ere ikasi egiten dute, eta dugu”.

Premisa horien gainean, abian jarri du Behauzeko Bizi Toki, Nafarroa Beherean, seme-alabentzat bestelako heziketa-sistema bat nahi duen guraso talde batek, hiru urteko prozesua egin ondoren. “Lehen Bizi Toki da hau, baina al bait Bizi Toki gehien abiatu nahi ditugu guk”. Hurrena, kostaldean sortzeko aukera ikusten dute, eta beren nahia halako proiekturen bat Hego Euskal Herrira hedatzea ere izango litzateke.



# G

## Haurra bere bizitzako eta ikasketetako protagonista

Goitia baserriak, eta baserri inguruko paraje ederrak, paradisu txiki horiek, urrundu egiten du ikastola hori ohiko ikastetxe-eredutik. Kokapena, aitzitik, ez da kasualitatea; Bizi Tokiren oinarrian dauden balioekin bat egiten du, bai balio pedagogikoekin eta baita jendarte-balioekin ere.

Bizi Tokik lehenesten duen heziketa-balioa edo printzipioa haurra heziketa-prozesuaren subjektu dela ulertzea da; eta, printzipio horien bidez, haurrek beren nortasuna oinarri azkar batzuen gainean eraiki dezaten, beren burua onets dezaten eta beren baitan ongi senti daitezten lortu nahi da; "Haurren ongizatea bermatu nahi dugu", diote guraso eta hezitzaileek, eta funtsezko hatsarre horietan oinarritu dute, beraz, lehen eskola:

- Haurren nortasuna errespetatzea.
- Haurrari bere berezitasunean laguntzea.
- Haurra bere osotasunean kontuan hartzea: afektu eta emozioen dimentsioa, sentipenen eta mugimenduen dimentsioa eta buruaren dimentsioa.
- Haurrak ikasteko duen nahian konfiantza izatea.
- Haurrari ikasketak dituen motibazioen arabera hautatzeko askatasuna ematea, argi izanda Bizi Tokin haurrak ezin duela nahi duen guztia egin baina, aldi berean, egiten duen guztia egin nahi duela.
- Haurrari autonomo izateko aukera ematea.
- Edozein adinetan, pertsona guz-

tiek ikasten eta irakasten dutela pentsatzea.

- Nortasun kritikoa garatzea.
- Haurraren sexualitatea errespetatzea.

Heziketa-printzipio horiek, ordea, ezin izan dituzte bereizi jendarte balioetatik. Hasieran esan dugunez, "Bizi Tokiren xedean parte hartzen dugun helduok balioak partekatzen ditugu, eta, gure ekintzen bidez, bizia edertzen lagundu nahi dugu". Azken batean, gurasoak haurren heziketaren inguruko kezka eta gaur egungo jendarte-ereduarekiko kritikotasunak elkartu bait zituen.

Partekatzen dituzten balio horietako bat, haurrei transmititu nahi dietena, euskara da: "Euskara plazerezikasiz eta mintzatuz, euskararen biziraupenaren alde jardun nahi dugu". Bestetik, oinarritzko beharrei loturiko balioak partekatzen dituzte: "Oinarritzko beharrak guhaurrek ase behar ditugu, adibidez, elikagaiak, tresnak eta energia guhaurrek ekoitzi; eraikinak, fabrikaziorako edo konponketarako lantokiak eraiki... Hori egiteko aukera emango diguten gaitasunak banaka eta taldean gureganatu behar ditugu, ekonomiko ki autonomoa den bizimodu baterantz aitzinatze". Izan ere, natura errespetatuz, harekin harremanetan bizitzea dute helburu Behaizen, planetaren oreka ekologikoarekin bateragarria den bizimodua bilatu nahi baitute: "Bizimodu orekatu horretarantz ahal bezain fite aitzinatze, gure eguneroko zenbait ohitura aldatu egin beharko di-

tugu". Horretarako, erabiltzen dituzten energiaren, ekaien eta tresnen jatorriari, ekoizpen-prozesuari eta bilakaerari arreta berezia eskaintzen diote.

Alabaina, balio horiei guztiei buruz etengabe eztabaidatzen eta hausnartzen dute Bizi Tokiko hezitzaileek, "askotariko informazio-iturri eta ikuspuntuek elikatzen baitute proiektua". Haa-tik, partekatzea da lehenesten den balioa, eta baita pertsonen arteko harremanak arretaz zaintzea ere.

Otsailean, 12 haurrekin abiatu da printzipio eta balio horietan oinarrituriko lehen Bizi Tokia Behaizen, Seaskarekin elkarlanean, baina, oraingoz, Seaskaren egituratik kanpo. Elkarlanean, zeren eta, Bizi Tokiren proiektu pedagogikoa prestatzeko garaian, uneoro Seaskako hezitzaileek parte hartu dute; baina, oraingoz, egituratik kanpo, Seaskako Administrazio Kontseiluarekin bilkurak izan dituzten arren. Hala ere, epeertain eta luzean Seaskarekin elkarlanean jarraitzea dute helburu, taldean Seaskako irakasle, guraso eta ikasle ohiak baitaude.

Lehen gogoeten ondoren, bigarren fasean, pedagogo batzuen lanak aztertzen hasi ziren gurasoak, modu monografikoan beroriei buruz gogoeta egiten, haien idealei forma sendoagoa eman ahal izateko. Besteak beste, Jean Piaget, Janusz Korczak, Marshall Rosenberg, Françoise Dolto, A. S. Neill, Olivier House, Britt-Mari Barthe, Philippe Meireu, Rudol Steiner, Maria Montessori eta Arno Stern izan dituzte aztergai.



## Ehunetik gora lagun elkartu dituen proiektua



Prozesuaren hirugarren fasean, bilkura irekiak iritsi ziren. Gurasoak, al-dian behin, biltzarretan biltzen dira, duela ia 3 urte hausnartzen hasi zirenetik. Biltzarrak lehen Bizi Toki bultzatu duten gurasoek egin dituzte, baina baita ikastetxe horretan sartu ez diren zenbaitek ere, aldioro biltzar irekiak egin izan baitituzte prozesu osoan zehar, proiektua ezagutarazteko, herritarrak erakartzeko eta guraso, hezitzaile edota interesdunen ekarpenak jaso eta eztabaidatu ahal izateko. Prozesu osoan, ehun lagunek baino gehiagok hartu dute parte biltzarretan. “Bizi Tokiaren burujabetasuna biltzarrean datza”, diote partaideek. “Guztiak ados jartzeko helburuz egiten diren eztabaiden ondotik datoz biltzarraren erabakiak”.

Heziketa-printzipioen, balioen eta pedagogoen ekarpenen inguruan hausnartu eta eztabaidatu ondoren, eskolari forma juridikoa nola eman pentsatzen hasi ziren proiektuaren bultzatzaileak. Frantziako Elkartearen Legeak

aukera ematen du 0 urtetik 7 urtera bitarteko haurren hezkuntza askatasun handiz kudeatzeko, beti ere, Estatuak ezartzen dituen gutxiengo batzuk bermatuta baldin badaude. Horren ondorioz, Bizi Toki ikastolak 1901eko Frantziako Estatuako Elkartearen Legean zehaztutako izaera du. Programak erakitzen ahal ditu, esan bezala, haurrak oinarritzko ezagueraz eta gaitasun komunez jabetzen direla bermatuz, eta ordutegiak eta irakaskuntza-antolaketak hautatzen ditu. Frantziako estatuan, 15 urte bitarteko ikastetxeetan, kontratupekoak edo kontratu gabeak izan litezke; lehenengoen kasuan, estatuak diru-laguntza bat ematen die zentroei, nagusiki irakasleen gastuak ordaintzeko, eta, era berean, Estatuak ordutegietan edota bete beharreko gai zerrendetan nahiz haurrak adinaren arabera bereizterakoan esku hartzeko aukera du; aldiz, kontratu gabeetan edo ikastetxe pribatuen kasuan, Estatuak ez du diru-laguntzarik ematen, eta esku-hartzea

ere arraz txikia da.

Lege horri jarraituz, Bizi Tokik berak aukeratzen ditu irakaskuntzan parte hartzen duten pertsonak eta pertsona horien lan-kontratuak, esku-hartze-etarako ordaindu egin behar zaienean. Eta horixe da Bizi Tokiren beste ezaugarri garrantzitsuetako bat: nagusiki, ikastolako haurren gurasoak dira hezitzaileak. “Hori da gure ezaugarrietako bat: helduek eta gurasoek kudeatutako proiektua da; baina guk dakigunarekin haurren beharrak asetzera iristen ez bagara, norbait kontratatu beharko dugu”.

Bitartean, gurasoak dira hezitzaile: “Horrek ez du esan nahi gurasoek beti han egon behar dutenik; baina proiektuan parte hartzen duenak bere gain hartzen du bere haurraren heziketa, eztabaida pedagogikoetan parte hartzen du, ez du heziketa beste inoren esku uzten”. Guraso guztien baliabide, premia eta moduak berdinak ez direnez, bakoitzak zer emateko aukera duen hitz egiten dute taldean, gurasoen kolektiboak garrantzi handia baitu proiektuan.

Familiei gauzak errazteko, eta proiektua haurren kokatuta dagoenez, gurasoen kolektiboaren behar ekonomikoak txikitzea edo urrunetik datozen guraso edo familientzat lotarako lekua bilatzea, horiexek izan dira Bizi Tokik orain arte hartu dituen neurrietako batzuk. Izan ere, gurasoentzat ere Bizi Toki da Behauzkoa: “Gurasoek beren seme-alaben heziketari buruz dituzten kezkek partekatzen dituzte hemen, elkarri laguntzeko gaude, geu ere ikaste prozesuan baikaude”.

## Janariak prestatuz, jolastuz, irakurriz... heziz eta haziz



Dagoeneko abian da ikastetxea Goitia baserrian. Ikastetxe horretan, jada haur eta hezitzaileak irakurtzen edo idazten, marrazten, janariak prestatzen, jolastzen... ari dira. Jarduera horiek guztiak, intelektualak zein praktikoak, lantzeko egiten duten ahaleginaren oinarria interesa da, hezitzaileen iritzi. Haurrek eguneroko jardueretan esku hartzen dute, janariak prestatuz, mahaia prestatuz, garbiketa eginez... Haurrek eta helduek elkarrekin egiten dituzte jarduera horiek. Beste jarduera batzuk, aldiz, helduek haurrei begira antolatutako jarduerak dira (irakurtzea eta idaztea, adibidez); eta badira beste jarduera batzuk (zurgintza, esate baterako) helduek lantzen dituztenak, nahiz eta haurrei, parte hartu ahalizateko, behar duten arreta ematen dieten. Bizi Tokin, eguneroko jardueraz gain,

gorputz-jarduerak, musikak, marrazketak eta margolaritzak, eta hizkuntzen ikasketak garrantzia dute. Hizkuntzen kasuan, adibidez, euskararen munduan murgiltzeaz gain eta frantsesaren pixkanakako ikasketaz gain, jarduerak gaztelaniaz, ingelesez... lantzen dituzte.

“Ikasteko, haurren intereseko bitarteko bat xerkatzen dugu beti, haurrari unean bertan zentzua duten jarduerak egiteko aukera emateko, bereziki; erran nahi baita garatzen diren jarduerak denboraz duten nozioarekin lotuta daudela”. Betiere, interesatzeko eta ikasteko, haur bakoitzak bere erritmoa duela kontuan hartuta: “Haur barentzat balio duen bidea ez baita, agian, horren eraginkorra beste batentzat”. Horregatik, Bizi Tokirentzat, “funtsezkoa” da haur bakoitzaren berezitasu-

nak aintzat hartzea: “Hasteko, haurra ulertzea xerkatzen duenak eta haurraren izaeratik abiatzen denak baitu egiazko hezkuntza eragina gauzatzeko”. Horregatik, haurrarentzako ikasketak egitasmoa pertsonalizatu egiten dute, “haren beharrei, ahalei eta nahiei ahal bezainbat egokituz ikasketak oro; baita ahalmen urriko haurren kasuan ere”.

Haurrak, geletan, ez dituzte adinaren arabera bereizten; alde batetik, haur-kopurua txikiegia delako, eta, bestetik, adinen arteko heziketan sinesten dutelako. Lehen asmoa, Jean Piagetek zehaztu zuenaren ildotik, haurrak 0-2, 2-7, 7-12, 12-15 eta 15-18 urte-tarteetan banatzea izango litzateke, baina, oraingoz, 0-7 urte bitarteko haurrekin abiatu da eskola.

Lehen adin-tartean, gutxi gorabehera 0 urtetik 2 urtera bitarteko haurren multzoan, ahal denean ama Bizi Tokin bertan izan nahi dute partaideek.

Bizi Tokiko irakaskuntzan esku hartzen duten helduek haurren jarraipen pedagogikoa egiten dute. Noizean behin, beste heldu batzuek ere esku hartzen dute irakaskuntzan, gurasoek bereziki. Batzorde pedagogikoak segurtatzen du irakaskuntzaren antolaketa eta koordinazioa. “Guraso anitzen edo guraso ez diren pertsona anitzen esku-hartzeari esker, haurra ez da etengabe gurasoen begiradapean”, zehaztu dute.

Haatik, gurasoak iristen ez direlako, gaiaren espezializazioagatik edo beste arrazoiren batengatik, beste pertsona batzuek esku har dezakete irakaskuntzan, sari baten truk.



## Utopiatik errealitatera?



Koherentzia arras hitz garrantzitsua da Bizi Tokiren proiektu pedagogikoa. “Haurrei transmititu nahi dieguna-

ren eta bizi dugunaren artean, koherentzia bilatzen dugu”, diote kideek. Hala erantzuten diete taldeko kideek

gurasoei, bileretan proiektua “ederregi” jotzen dutenean eta “utopikoegia” ote den galdetzen dietenean. “Bizi-proiektua da hau, bizitzari begira dago, eta gure bizitzak ez daude burbuiletan sartuta”. Behauzeko baserri batean kokatuta egoteak ez du esan nahi errealitateetik at dagoen proiektua denik, ezta hurrik eman ere. “Bizi Tokiko haurrek egunen batean medikuntza ikasi nahi badute edo enpresa-ikasketak egin nahi badituzte, guk, horretarako, tresnak eta baliabideak eskaini behar dizkiegu”. Hezitzaileek diote haurrak “gaur egungo errealitatearekin konfrontazioan” egongo direla, “errealitatean txertatua dagoen proiektua baita; baina, betiere haurren nahiak eta beharrak errespetatuko ditu, eta horiekin koherentzia gordeko du”.

Bestetik, koherentzia horrek helduen artean ere benetako komunikazioa eta errespetua ezinbestekoak direla esan nahi du: “Haurren komunikazioak arduratzen gaitu, baina helduenak ere bai”.

Horrek guztiak helduek egiten dituzten gauzak ere zalantzan jartzera daramatza hezitzaileak; ez dituzte soilik haurren hezkuntzari buruzko gaiak eztabaidatzen, beraien harremanez edo lanaz ere hausnartzen dute. “Horrek, ordea, finean plazera dakarkio helduari ere, gauzak zentzuz egitearen plazera”. Egiten duten oro, ezinbestean, zentzuz egiten dute Bizi Tokin, hausnartu eta eztabaidatu ondotik.

## Pedagogoen sendotasuna



Proiektu pedagogiko sendo baten ganean eraiki dute Behauzeko eskola gurasoek. Luze irakurri, hausnartu eta eztabaidatu dute hezkuntza-printzipioez, haurren autonomiaz, oinarrizko ikasketek, eguneroko jardueraz, garapen-mailez... “Irakasle guztiek ezagutzen dituzte pedagogo horiek, baina gehienek ez dituzte aplikatzen haien teoriak beren getetan; guk bai, guk aplikatu egiten ditugu”. Janusz Korczak izan da horietako bat, eta haren printzipio bat oso sendo aplikatzen du Bizi Tokik: haurra ez dute hartzen bilakaeran den izakitzat soilik, baizik eta, batez ere, orainaldian bizi den izakitzat.

Izaki hori, era berean, bat eta bakarra da, “eta haur bakoitzaren beharrei espezifikoki erantzun behar diegu, bakoitzaren garapenean sinetsiz”. Betiere, bat eta bakarra den haur hori kolektibo edo jendarte baten barruan hazten eta hezten dela sinisten dute gurasoek: “Taldeak indarra emango dio haurrari

eta proiektuari, baina, horretarako, bortizkeriarik gabe komunikatzen ikasi behar da”. Hori praktikan ezartzeko, Marshall Rosenbergen esperientzian inspiratu dira.

Oinarrizko ikasketak eguneroko bizitzan gauzatzen dira, eta horixe da Bizi Tokiren filosofia laburbiltzen duen ideia; haurren garapenaren eta eskaren arabera, zailtasun-maila gero eta handiagoa da. Adin tarte horretan, beraz, ahozko mintzaira ikasteak, idazketa eta irakurketa ikasteak edota matematika ikasteak garrantzia izango dute. David A. Sousak, Noam Chomskyk edota Maria Montessorik esandakoek, beraz, pisua izango dute Bizi Tokiren proiektu pedagogikoan.

Bizi Tokiko haurrek motibazioaren bidez egiten dute ikasketa, haurren abiapuntua eta euskarria motibazioa dela baitiote bertako kideek. A. S. Neilli jarraitzen diote hein batean: harentzat, metodoak ez du axola; adibidez, hau-

rrak zatikiak kalkulatzeko moldeak ikasi nahi badu, lortuko du, erabilitako metodoa edozein izanda ere; horrek ez du esan nahi, noski, ikasteko beste molde ezagutu eta erabili behar ez dituztenik.

Celestine Freinet ere aintzat hartzen dute, edo Britt-Mari Barthe eta Olivier Houde. Houderen akatsaren logikaren ildotik, haurren garapen mentala ez da ulertu behar soilik ezagueren urraskako jabetze modura; jada barruan dituen ezagueren adierazpena oztopatzen duten erreakzioen inhibizio-gaitasun modura ulertu behar da, halaber. Bizi Tokiren arabera, beraz, “akatsen ulertzea lorpenen ulertzea bezain garrantzitsua da; haien logikatik ondorioztatzen dira aitzinamendu-faktoreak”. Horren ondorioz, proiektuan parte hartzen duten kideek diote irakaskuntza pertsona bakoitzari zerbait lortzeko modua emango dion eran antolatu behar dela.

Antoine de La Garanderiek dioenaren ildotik, pertsona orok ikasketarako dituen prozedura mentalez jabetzeari garrantzia ematen dio ikastola berriak, ohitura metodologiko horietaz kontzientzia hartuta, errazagoa baita hobetzea edo berri batzuk eskuratzea.

Philippe Meirieu ere ikasketa-egonei buruz esaten duenari jarraituz, ikasketa abiatu aitzinetik, ebaluazio-diagnostikoa egiten dute, haur bakoitzaren baliabideak eta beharrak zerrendatzeko. Ikasketan, haurren aurrerapena oztopatzen duten puntuez edo haurrari zailtasunak sorrarazten dizkion egoerez ohartzeko, beste ebaluazio bat egin behar da. Eta hirugarren ebaluazioa ikasketaren bukaeran egingo da, ikasitakoa neurtzeko.



## Goitia baserriak duen inguru ederra



# jon

## sarasua maritxalar

### *ELKARRIZKETA*

Mondragon unibertsitateko irakaslea. Sortzailea eta ikertzailea.

“Ikaslea kultur fluxu bateko parte sentiarazten eta hor modu sortzailean kokatzen gutxi asmatu dugu”





# Jon sarasua maritxalar

E

“ Hezkuntzaz hitz egitea errealitate osoaz hitz egitea da: herrigintzaz, munduaz, psikologiaz, zientziaz, etikaz, geroaz. Errealitateak azkura eragiten badizu, hezkuntzak azkura eragingo dizu.

”

Jon Sarasua Maritxalar aretxaballetarra (Gipuzkoa) da. Bertsolaria da oso gaztetatik, eta hogeitun urte egin zituen horretan. Bertsozale Elkarteko kide izan da sorreratik, eta hainbat ardura bete ditu mugimendu horretan.

Oparoa izan da bertso munduan egin duen bidea, eta horrek egin du ezagun, beharbada. Baina, era berean, beste alor asko jorratutakoa da. Sortzaile, ikertzaile eta idazle ere bada, eta haren azken liburua *Ertzeko zatiak* izan da. Baina, batez ere, taldeak sortzen eta kudeatzen jardun du azken urteetan.

Mondragon Unibertsitateko Humanitate eta Zientzien fakultateko irakasle da. Bestalde, LANKI lankidetzaren ikertegiko koordinatzailea izan da hamar urtean, kooperatibismoaren arloan. Era berean, euskarari, nazioarteko harremani eta herrigintzari lotutako erakundeen sorreran ibili da.

Ibilitako bideetan, hezkuntzarekin harremana izan du beti. Herrigintzan eta kooperatibismoan egin dituen urrats ugariak hezkuntza arloko hainbat alderdiren gainean hausnartzeko beta eskaini diote. Ibilbide oparo horretan ikusitakoak eta egindako hausnarketak partekatu nahi izan ditu gurekin. Hurrengo orrialdeetan aurkituko dituzunak hezkuntzari eginiko begiratuak dira, begiratu zorrotz eta pertsonalak.



**Hainbat aldetatik begiratzen diozuek hezkuntzari, Jon. Duzun begirada zabal horretatik, zer ikusten duzu, zein dira zure kezkek hezkuntza arloan?**

Abiadura handiko aro batean bizitara. Hezkuntza beti izan da arte bat, eta une honetan aurreko garaietan baino material gehiago hartu behar ditu kontuan arte horrek. Nire ustez, une honetan Euskal Herrian indarrean dugun ideologia hegemonikoak hutsuneak ditu, eta hori hezkuntzan ere nabari da. Bestetik, gure herri honek baditu indargune batzuk, ikuspegi unibertsal batetik, eta horiek ere beren isla dute hezkuntzan. Nolanahi dela ere, hezkuntzaz hitz egitea errealitate osoaz hitz egitea da: herrigintzaz, munduaz, psikologiaz, zientziaz, etikaz, geroaz. Errealitateak azkura eragiten badizu, hezkuntzak azkura eragingo dizu. Nire kasuan, herrigintzako beste alor batzuetatik begiratzen diot hezkuntzari, eta hezkuntza araututik irten berriak diren hogeitun urtekoen irakasle naizen aldetik ere bai; baina, nagusiki, guraso naizen aldetik.

**Has gaitezen herri moduan ditugun indarguneetatik.**

Herri moduan begiratzea baino lehenagokoa iruditzen zait etika planetario bat erabiltzea, begiratu global bat. Horren baitan, euskal herriek esperientzia propioak dituzte, eta gaur egun maila globalean dauden gaitzuek hemen potentzial bereziak dituztela esan daiteke. Batetik, nortasuna berreraikitzen saiatzen ari den hiztun komunitate minorizatu garen aldetik, mundu mailako korapilo batean gaude. Gure galderak ehunka hiztun komunitateren galderak dira, eta gure erantzun partzial

batzuk izan litezke baliozkoak. Bost hamarraldi hauetan hizkuntzaren gaian egin duguna ez da hutsala, balio handia du, eta kinka konplikatuan gaude. Bestetik, energia soziala antolatzearen arloa dago, zehatzago esanda, autoeraketaren potentziala. Hau ere mundu mailako gogoeta izango dela iruditzen zait, gero eta gehiago. Honetan, arrazoi desberdinengatik, esperientzia interesgarriak ditugu, hezkuntzan bertan ere bai. Badago zer bait gure psikologia sozialean antolaketa zibil horretara garamatzana, amestera, ekitera eta horizontal samar antolatzera. Hori garrantzitsua da, estatu eta merkatu binomioak muga handiak baititu, eta gizarte antolatua artikulatzea izango baita gakoa gerora ere. Arlo batzuetan, etorkizuneko munduaren humanizazioari begira, ekarpen edo esperimentu espezifiko batzuk gertatzen ari dira hemen. Hori interesgarria da. Gure herriaren jarioan dauden sen horiek, besteak beste, nortasun-sena eta autoeraketa-sena, aztertu eta kontuan hartu beharko genituzke.

### **Izango dira, bada, horren onak ez diren aldeak ere...**

Gainerakoan, ideologikoki, ahul gabiltzala iruditzen zait. Ideia progresistak hemen tsunamian etorri ziren, ez erreka bat etortzen den moduan, eta ez zen patxadarik izan ikusteko progresismo horretatik zer nahi genuen, aurretik genuen guztiarekin zer nahastu, zer zaindu eta zer digeritu nahi genuen. Euskal munduan instalatu den ideologia progresistak jokatze desegoki batzuk baditu, gai batzuk moztuta ditu, sustraiak ez ditu identifikatzen, eta datozen galdera berri askoren aurrean galdu egiten da. Aurrekoekin puskatzeko joera horrek sakonean bazuen halako nagusitasun sentipen bat gurasoen paradigmarekiko, aurrerapen edo progresoarenekin sinesmen batek legitimatua. Etxeko hezkuntzan ere eragina izan du horrek. Trantsizioko belaunaldiak gauza batzuk ez zituen egin nahi gurasoek bezala, uste zuen askoz jakintsuagoa, aurreratuagoa zela... Baina ez nago hain seguru gauza askotan asmatu ote zuen.



Apalago begiratu behar da amonak gauzak zergatik eta nola egiten dituen, oharkabeko jakituria dago xehetasun askotan, eta ideia berriak patxadaz nahastu behar dira. Beste nonbait esan dut moztu eta ebaki ez direla gauza bera, eta hemen adargehiegimoztu dira. Nire kasuan, ideologia progresista hegemonikotik apur bat desinstalatzeko ari naiz, ibilbide bat egiten, eta deserosoa da desinstalatzeko: ziurtasuna kentzen dizu. Iruditzen zait galdetzeko garaiak direla, gehiago irekitzeko, bai iraganeko erroretara eta bai pentsabide berrietara.

### **Eta zer da ideia progresista horietatik desinstalatzeko horretan ikusten duzuna?**

Gauza asko dago hor, arlo ekonomikoan, etikoan, psikologikoan edota espiritualetan. Paradoxa dirudien arren, progresismoa, neurri batean, sistemaren ideologia da; benetako amildegia ekonomikoari erantzutetik dimititu du, eta, hipermerkatuaren alboko askatasunen aldarrikapena eginez, funtzionala da egungo sistema sozioekonomikoa. Honekin, ez dut nik progresismoarekin moztu nahi. Askatasunaren eta berdintasunaren ideiak sustrai zaharretatik datoz, eta bi erreferente on dira, baina hori baino sakonago doan jauzi bat beharko dugula iruditzen zait arlo askotan. Adibidez, gizakia pilatzen ari den jakintza teknologikoak inoizko boteretik handiena jarriko du hurrengo belaunaldien eskutan, eta, horren konplexutasuna kudeatzeko, jauzietikoa beharko du. Esaterako, datozen belau-

naldiek boterea edukiko dute gizakiak klonatzeko, geneak masiboki manipulatzen, bizitzan gune birtualak gehitzeko, ezaugarri batzuk dakartzatenei jaiotzen ez uzteko... Une honetako ideologekin eta bulkadekin, ez dut uste gai garenik esku artean izango duguna kudeatzeko. Askatasun indibidual jakin baten gorapamenarekin, adibidez (abortuaren gaian nahiko sinpleki egiten dugu hori), irteerarik gabeko bidera joan gaitezke bioetikan. Gogoeta horietan oso geldi gaude hemen. Hollywooden bertan, guk atzerakoitzat badugu ere, hasi dira horrelako debateak planteatzen zineman, zientzia-fikzioa alegorien bidez. Hemen, eskubideen diskurtsoan gaude, 70eko hamarraldiko planteamenduetatik ez da inor mugitzen. Oro har, globalki jauzi etiko-ideologiko bat beharko dugula iruditzen zait, eta, horretarako, arnasa luzeko jakituria iturriek ere badute zeresana. Modernitateak arrazoiaren tresnetan jarri zuen mundua hobetzeko uste osoa, baina gero eta argiago ikusten dugu hori ez dela nahikoa. Ez zaie eusten arrazoiaren tresnei oinarri etikorik gabe, eta esango nuke etika ere ez dela besterik gabe sortzen, gizakiaren dimentsio sakonagoak ukitu gabe.

### **Zein dira arrazoiaren tresnak mundu hobetzeko egiteko?**

Modernitateak arrazoiaren bi bide handitan jarri zuen fedea: politikan eta zientzian. Horiek dira gizaki moderno progresistaren sinesmenak. Uste dut gugan ditugula bai modernitatearen

# Jon sarasua maritxalar

E

“**Hezkuntzaren uniformizazioa bera egiten zait deigarria, eta arautze zurruna. Sistemak denek berdintasuna ziurtatzeko kezka handia balu bezala. Berdintasuna da progresismoaren totem nagusietako bat, eta hezkuntzan maila askotan eragiten ari da ideal berdintzaile hori. Homogeneotasuna bilatzen da. Berdintasun hori nola ulertzen den, kalterako izan daiteke, nire ustez.**

”

bulkada, arrazoiaren bidez mundua hobetzeko, eta bai postmodernitatearen eszeptizismoa fede horren aurrean. Bulkada eta eszeptizismoa, biak dira orain gureak. XX. mendeak zalantzak ekarri ditu arrazoiaren fede horretara. Hainbat sustrai tradizional ‘gaindituta’ zituen mendea, politikoki modernoena, izan da historiako menderik ikaragarriena, horrorearen marka pentsaezina jarri dituen kuantitatiboki. Ideologia politiko modernoek izugarriak egin dituzte. Faxismoa aipatu gabe ere, ikusten badugu bloke sozialistak zenbat urte iraun zuen, eta zenbat pertsona garbitu zituen urte gutxi horietan, izugarria da. Eta kapitalismoak inoizko alderik handienak sortu ditu, inoizko deserrotze kopururik handienak, eta amildegia egunero hazten da. Zientziaren erabilera ere anibalentea izan daiteke. Zientziaren inguruan mitoa sortu da, benetan dena gainditzen duen ezagutza-gorputz hori. Berez ‘zientzia’ deitzen duguna ezagutza sortzeko eta biltzeko prozedura multzo bat da, eta hainbat zalantza-maila dituen askotariko jakintza gorputz itzel bat. Jakintza bide hori funtsezkoa da, baina bere mugak ditu, ez du zentzuaz hitz egiteko ahalmenik, eta haren erabilera izan liteke eraikitzailea edo suntsitzailea ere.

Iruditzen zait elementu gehiago mahai gainean jartzeko garaia dela: politika, zientzia, kultura, etika, jakituria iturriak. Ematen du lasterketa moduko bat gertatzen ari dela. Alde batetik, teknologiaren azelerazioarekin eta kapitalismoaren garapen ereduarekin, pentsa daiteke krisi sistemiko lodi batera hurbiltzen gaituen gurpil bat dagoela abian, maila askotako galerak eta astinduak dakartzana. Bestetik, badira horrekin batera sortzen ari den kontzientzia-hartze berri baten sintomak, oso iturri eta modu desberdinetan mamitzen ari den sentsibilitate humanizatzaile batenak, etika planetario batenak.

**Aipatu duzun ideologia progresista horren zein zantzu aurkitzen dizkiozu hezkuntzari?**

Belaunaldi progresista da gaur egun

irakasle, curriculum egile eta agintari. Hasteko, hezkuntzaren uniformizazioa bera egiten zait deigarria, eta arautze zurruna. Sistemak denek berdintasuna ziurtatzeko kezka handia balu bezala. Berdintasuna da progresismoaren totem nagusietako bat, eta hezkuntzan maila askotan eragiten ari da ideal berdintzaile hori. Homogeneotasuna bilatzen da. Berdintasun hori nola ulertzen den, kalterako izan daiteke, nire ustez. Desberdinak gara, desberdinak dira familiak, eta kulturak, eta haur bakoitzaren potentziala. Pertsona bakoitza mundu bat da. Generoan ere, hor daude partzialki desberdinak egiten gaituztenak fluxu zahar batzuk, eta beste arlo batzuetan ere konfigurazio desberdina daukagu, eraginaren arabera. Eta zer?

Goazen heterogeneotasuna patxada pixka bat gehiagorekin hartzera. Berdintasuna, *igualitate* moduan, ez zait iruditzen sen onekoa, nahiago dut *berduintasun* moduan. Berduintasuna, duintasun berdina. Eta *igualitatea* ere bai, baina ea zer-nolakoa eta zertan, askotan nabardurarik interesgarrienak uniformatzen baititugu, eta errealitate konplexu askoren ekologia pobretzen.

Bestalde, unibertsitateko ikasleengan ikusten dut eskolan oraindik historiaren eta gauzen bertsio progresista transmititzen dela: “Erdi Aroa garai ilun bat zen, ilustrazioak ekarri zuen argia. Lehen mitoa zituzten, eta orain zientzia daukagu”. Eta abar. Berez konplikatuagoa da, eta eztabaidagarriagoa, baina modu inkontzientean, sinesmen bat transmititzen da, eta arnasa luzeko tradizioekiko gutxiespen bat, orain irakasle den belaunaldiak hori edan duelako, narratiba hori duelako oraindik barruan.

Nik uste dut une interesgarrian gaudela, dena nahiko irekita dagoela, eta ez dagoela horren garbi zer den atzerakoia eta zer aurrerakoia. Modernitatea, aurrerapena, zientzia, politika, tradizio espiritualak, etika..., gauzak dantzan daude, eta eskolak irekiagoa izan behar luke, eta ez luke narratiba zehatz bat transmititu behar. Hori poliki-poliki egingo dela uste dut.

## Itzul gaitzen autoeraketaren ideia... Antolaketa modu eraginkorra izan al daiteke?

Autoeraketak esan nahi du eraketa bateko zuzeneko protagonisten esku dagoela boterean, erabaki ahalmena. Ideia horretan oinarriturik, eraginkortasun maila askotako esperientziak daude. Batzuk nahiko eraginkorrak dira beren arloan, zentzu batzuetan. *Arrasateko kooperatibagintza* deritzonak, adibidez, bost hamarralditako ibilbidea egin du, eta hor segitzen du esperimentuak. Enpresa ulertzeko moduari dagokionez, erreferente bat da. Dena den, esperientzia horretan hainbat gauza paradoxikoak dira, eta ez dago kontraesan handietatik libre. Euskal Herriko bigarren esperientzia autoeratu handia ikastolen mugimendua da. Hori ere mundu mailan erreferentea da horretan. Gero, euskararen garapenari azpiegitura ematen dioten erakunde gehienak ere nolabait ekonomia sozialekoak dira. Eta beste hainbat daude. Herri honek badu nerbio autoantolatzaile bat. Hala ere, ez da nahikoa soilik enpresa egitura demokratiko samarrak sortzea. Demokrazia politikoarekin gertatzen den moduan, demokraziaren eskolak ez dizu ziurtatzen mamia, benetako partaidetza eta benetako proiektu partekatua dituenik. Kooperatibetan, askotan gertatzen da eskemari eustea, baina eskema ernaldu duen ametsa, bulkada eta espiritua hoztea. Eta, azkenean, potentzial eraldatzailea galtzea. Hori ez dizu ematen egiturak. Eta egiturak amets bulkadari gaina hartzen diotenean, boterea hartzen du, eta oso zaila izaten da buelta ematea. Horren mila adibide daude, baitaldetxikietan eta bai erakunde handietan.

## Aipatzen ari zaren horietan, zer paper joka dezake eskolak?

Eskolak gauzak egin ditzake, baina gehiegi eskatzen zaio. Nik gehiago azpimarratuko nuke hezkuntza-eragileen aniztasuna. Eta eskolari pisua kentzen saiatzea, zigorkatzea daraman pisua behintzat.

Nik guraso naizen aldetik egiten du-

dan galdera hau da: haurbatek haur iza-teari uzten dion arteko ibilbide luze horretan, zer bizitzea, zer garatzea, zer ikastea, zer lantzea, baina bereziki, zer bizitzea nahi dugu? Hori da niretzat hezkuntzak egin beharreko galdera, eta ez dagokio bete-betea eskolari. Eskola eta hezkuntza bi gauza dira.

Guraso naizen aldetik galdera hori egiten dudanean, hor sortzen zaizkidan erantzunetan nire semeek garatzea nahiko nituzkeen hamabostatarlo, esperientzia multzo edo eremu sortzen bazaizkit, konturatuko naiz eskolak % 20 betetzen dituela, nolabait esatearren. Beste batzuk geuk edo gure gurasoek edo anai-arrebek, familiak, lagunek, neure inguru sozialak zaindu eta erein behar ditugu. Beste batzuetan, nahiko nuke inguruko erakunde sozialek eragitea, eskola ez diren erakundeek; eta gainera, Internetek eta hedabideek eragin hezitzailea dute.

Hala ere, hezkuntza hauraren berrezko bulkadei garatzen uztea da, asmoei ermetzen lagatzea, hainbat oreka zaintzea eta beste mila kontu, arte bat. Eragile askoren artean egin beharrekoa. Kasu gehienetan, gurasook gara benetako azken arduradun edo begirale, animatzaile, oreka-zaintzaile. Gurasoei askoz gehiago begiratzen diet: haurrari hazten laguntzea ardura eta aukera itzela da, eta hor, eta gero lagunekin, jokatzen da hezkuntzaren muina. Gurasoen kontzeptua, bestetik, modu zabal batean ulertuko nuke, ahal den kasuan: haurren heziketa sozializatu daiteke familia edo talde zabalxeago batean, eta oreka interesgarriak sortzen dira hor (izeba-osabak, aitona-amonak, lehen-gusuak, helduen gertuko lagunak...), ardura partekatuz. Eta, bestetik, ingurune osoa izan daiteke hezitzaile. Herrietan, elkarrekin eta abarrekin horretarako egitura sozial aberatsa dugula iruditzen zait, potentzialki behintzat.

## Nola ikusten duzu eskola, ingurune horretan?

Hasteko, onartu behar dugu lau pairetan artean egiten den jardun hezitzaile arautuak bere mugak dituela. Lehen



esan dudana hezkuntza zabal horrentes-tuinguruan, zati mugatu bat baizik ez da. Jakina, hor ere asko hobetu daiteke, eta dugun tresna antolatutik eragileena da. Baina, oro har, etxeak izan duen erantzukizun lagatze hori... Nik uste, hori berreskuratzeko deia egin behar dela, kasu askotan. Herriko sareek ere, zirkuitu sozialek ere, beren jardun hezitzailea dute, eta handiagoa izan dezakete. Nik horrela ulertu nahiko nuke herri bat, 'herri hezitzaile' moduan, funtzio hori integratua duen herri moduan. Igual herrian bada dantza elkarte bat, edo yoga talde bat, edo psikologia pertsonala lantzen duen erakundetxo bat, edo euskara elkarte bat, bertso eskola bat, xake talde bat, auzotarren elkarte bat... Horiek guztiak erakunde hezitzaile moduan ulertu nahi ditut, hainbat modutara. Hezkuntzaren diskurtsoan, hezkuntza-eragileen aniztasuna landu dezakegu, eta hor kokatu eskola: hainbeste karga ez eman eskolari, eta ematen dioguna ondo egiten lagundu.

## Beharbada herri gisa proiektu bat izango bagenu...

Badira esperientziak eta ideiak. Diozun moduko proiektu baten miniatuaren lehen zirriborroa izan daitekeena egiten saiatu ginen Debagoieneko Bagara prozesuan. Bailarako gizarte antolatuko indarrak (kooperatibak, hezkuntza erakundeak, unibertsitatekoak, euskalgintzako erakundeak, erakunde sozialek) norabide batean lanean jartzeko prozesua da Bagara. Eta, besteak beste, bailara hezitzaile mo-

# Jon sarasua maritxalar

E

“**Hezkuntza haurren berezko bulkadei garatzen uztea da, asmoei ernetzen lagatzea, hainbat oreka zaintzea eta beste mila kontu, arte bat. Eragile askoren artean egin beharrekoa. Kasu gehienetan, gurasook gara benetako azken arduradun edo begirale, animatzaile, oreka-zaintzaile.**”

”

duan funtzionatzeko pausoak ere zirri-borratu ziren une batean. Praktikara eramatea beste kontu bat da, baina hor-tik hasten da, beste hainbat alorretan egin den moduan. .

## Zertan datza Bagara?

Duela bospasei urte, bailarako in-dar sozial eta kooperatibo bizietako pertsonak bildurik, elkarrekin pentsatzen jarrita zer amesten dugun galdetu genuen, datozen hamarraldietarako zein norabide hartu nahi dugun eskualde moduan, jendarte antolatuari dago-kionez. Norabide bat da, ortzimugak marraztea, eta horri begira proiektu ze-hatzak abiaraztea. Ortzimuga horiek eta proiektu horiek elkarrekin dituzten loturetan eta sortzen diren ahalbide berrietan datza prozesuaren berritasuna.

Norabide horiek marrazterakoan, lau ipar lauso destilatu zitzaizkigun. Lehenik, euskaltasun ireki bat esperimen-tatuko eta garatuko duen bailara izan nahi dugu; euskaldun izatea nolabait berrasmatzeko dago egungo parame-troetan, eta, gure neurrian, horretarako gune izatea da ametsaren parte bat. Bi-garrenik, autoeraketa eta lankidetzeta es-perimentatuko duen bailara izan nahi dugu; neurri batean, horretan ezagu-nak gara, baina autoeraketaren arloetan urrunago joateko gogoia dago. Hiru-garrenik, elkartasuna biziko duen baila-ra izan nahi dugu; elkartasuna da nola-bait gure tradizioko balio sozial sakone-na, kristautasunean, sozialismoan edo-ta munduko tradizio espiritual handie-tan hainbat modutan formulatzen de-na: bestearekiko enpatia, bereziki ahu-lago dagoenarenganako enpatia, he-men edo munduan dagoen bestearen-ganako arduraren oinarria. Laugarre-nik, iraunkortasuna. Baliabide urriago-en aro bati begira, bestelako kontsumo, energia, bizimodu eta irudikapen-mo-du bateranzko bidean kokatu nahi dugu, horretarako bide zehatzak abian jarritz.

Lau ipar horiek norabideak marraz-teko modu bat dira, proiektu zehatze-tan zehazten direnak gero. Ipar lauso horiek batu gaitzakete bailara horretan



gizar-te antolatu-ko enpresetan edo sareetan modu era-gilebateangabiltzan gehienok. Iparho-riek gogoan hartuta, helburuak eta proiektuak definitzeko lan egin da hainbat arlotan: etxebizitza, nekazaritza, kulturgintza, euskalgintza, etorki-nak, kontsumoaren humanizazioa, iraunkortasuna eta abar. Proiektu bat-zuk abian dira, baina oraindik berde da-go prozesua, eta ez dago inori gauza gehiegi irakasteko moduan. Ez du me-reziluzatzea Bagarako proiektuetan eta egoeran, baina hezkuntzak ere bere za-tia du proiektuaren genesian. Adibide moduan balio dezake, herrigintza bir-pentsatzeak hezkuntza ere birpentsat-zea edo ukitzea esan nahi duela esate-ko. Galdera polita izan daiteke hau: ea nola egin daitekeen bailara hezitzailea-gobat, herrietan dugun elkarte, erakun-de eta mugimendu txikien saretze so-zial osoari bere hezitzaile kontzientzia gehituz, hariak lotuz eta baliabide hezit-zaile gehiago sortuz.

## Baliabide hezitzaile gehiago?

Baliabide edo egitura txikiak. Adibi-dez, gazteek prestakuntza soziopoliti-korik ez izateak kezkatu izan gaitu. Gaz-taroan norberaren prestakuntza sozio-politiko eta ekintzailea lantzeko gune-ak izatea ederra da, eta horrelakorik ia ez dago euskal herrietan. ‘Politika’ esa-ten dudanean, hitzaren zentzu zabale-an ari naiz, eta ez nagusiki alderdikoian. Polisa pentsatzea da politika. Politika beharrean polistika esan beharko ge-nuke beharbada, politikak hartu duen zentzu alderdikoi horren inguruko gaizki-ulertuak saihesteko. Iruditzen zaigu lanketa eta debate polistiko hori falta dutela eta formazio soziala eskat-

zen dutela gazteetako askok. Bailaran eskola bat sortzeko pausoak eman dira, herrigintza landu nahi dutenentzat, herrigintzarekin lotura izan nahi duten gazteentzat. Adibidetxo bat da, eta hasieran dago.

### **Euskaltasuna, autoeraketa, elkartasuna eta iraunkortasuna. Zuek hartu dituzuen lau iparrak baliagarriak izan daitezke gure eskoletarako!**

Guri behintzat herrigintzarako lau-kote interesgarria ematen digute, iparrorraz moduan balio dute. Ezkerraren iraultza amets huts eginetik eta haren erresakatik gauza asko ez da geratu, eta uste dut gaur modu apalago baino eraginkorragoan planteatzea litezkeela ortzimuga lauso horiek. Dena den, horiek herrigintzarako ipar batzuk dira, eta hezkuntzak dimentsio gehiago ere hartu behar ditu kontuan: haurraren autonomia, gaitasunak eta beste hainbat arlo gehiago landu behar ditu, ezta?

Herrigintzara itzuliz, utopia poto-loegien belaunaldia izan da trantsizio osteko ezkerria. Pentsatu non geratu den iraultzaren ametsa, adibidez. Nera-beak ziren ezkerraren planteamendu asko, eta horrek arrisku bat dauka hurrengoentzat: ametsak faltsuak direla pentsatzea. Amestea, ordea, beharrezkoa da beti. Espiritu hori galtzen duen erakundea edo mugimendua, akabo. Kontua da amets doituak egitea, existitzen ez dena planteatuz, baina norberaren indarrekiko eta gaitasunekiko konkordantzia batekin. Amets txikiago horiek, konkretuek, aldi berean, ortzimuga bat behar dute, ipar batzuk, lausoak eta irekiak, baina energia ematen dutenak. Amets doituak, eta energia ematen duten ortzimuga urrunak.

Gauza horietaz ziurtasunez hitz egiten dut, beharbada, bizipen pertsonaletatik hitz egiten dudalako. Betetzen joan diren amets kolektibo konkretuen parte izatea tokatu zait hainbat arlotan, eta batzuetan oso modu intentsuan. Bada-akit amets asko bidean ere geratzen direla, baina amesten, giza taldeak trinkotzen, estrategiak bideratzen eta horiei



eusten jakinez gero, gauzak aurrera joaten dira askotan. Eta errealitatea eraldatu, eraldatzen da, partzialki, baina batzuetan uste baino gehiago, itxaropenen gainetik. Uste dut hori ere esan behar zaiela gazteenei.

### **Zeintzuk dira, zure ustez, eskola batean egin beharreko gauza garrantzitsuenak, garatu beharko genituzkeen gakoak: non "inbertitu" beharko genuke?**

Galdera konplikatuegia da niretzat, eskola zeharka soilik ukitzen baitut. Eskolaren funtzio tradizionalena instrukzioa da. Orain, instrukzio leku izatetik teoriarik heziketa integrala eman behar izatera pasatu da. Hori esatea polita da, baina eskolari gehiegi eskatzea da. Gaur egun, dena eskatzen diogu, hezkuntza-eragile guztienak izan beharko luketen helburu guztiak eskatzen dizkiogu eskolari. Eta, nolabait, 'dena kontuan izatea' eskatu behar diogu, bai, baina ez 'dena egitea'.

Iruditzen zait, batetik, eskolak irakasten jarraitu behar duela. Eskolari, azkenean, gurasoak, gizarteak eta sistemak eskatzen dion gauza bat da: "Gaztarorako presta iezadazu neska edo mutiko hau, gero lanbide bat ikasi ahal izateko edota unibertsitatean moldatu ahal izateko". Hau da, sisteman funtzionatzeko oinarriko baliabideak har ditzala nolabait, hizkuntzaren funtzioak, kalkulua eta gaitasun instrumental sorta bat barnera ditzala, eta, bestetik, bereinguruko sistema, mundua, gizarte mini-

moki uler dezala. Bi gauza horiek oinarrikoak dira, klasikoak, eta esan dezagun eskolak egiten dituela, hobeto edo okerrago. Jakina, hori hezkuntzaren parte zehatz bat da, gero eta zabalagoa hori ere. Eta gauza asko ondo egiten dira.

Horrekin batera, badaude beste hainbat eremu. Batzuk lantzen dira, diskurtsoan behintzat. Horietan, nire inpresioa da diskurtsoen inflazio moduko bat dagoela hezkuntzan, balioak, kompetentziak, zehar-lerroak... Eta askotan inflazioek ez dute laguntzen ikusten benetan lortzen dena eta ez dena. Nik hautematen dudaren arabera, nire begiratu mugatuarekin, diskurtso handiak egon arren, eremu batzuk gutxi lantzen dira errealitatean. Ez dakit eskolak nola landu beharko lituzkeen, baina, guraso moduan, eremu garrantzitsuak iruditzen zaizkit.

### **Denok ahotan darabiltzagu diskurtsoak, baina praktika... Zergatik uste duzu zuk dagoela halako amildegia esaten ditugun gauzen eta egiten ditugun artean?**

Hezkuntzari buruzko kezka edo desilusio hori testuinguru zabalean kokatuko nuke. Nire ustez, hezkuntzan ikusten dugunaren krisiak badu zerikusirik munduaren abiadurarekin, eta abiadura horren aurrean dagoen irakasle eta guraso belaunaldiak nahiko oinarri ahulak ditu. Ahultasun horri ez dio lagundu

# Jon sarasua maritxalar

E

**“Eskolaren funtzio tradizionalena instrukzioa da. Orain, instrukzio leku izatetik teoriarik eman behar izatera pasatu da. Hori esatea polita da, baina eskolari gehiegi eskatzea da. Gaur egun, dena eskatzen diogu, hezkuntza-eragile guztienak izan beharko luketen helburu guztiak. Eta, nolabait, “dena kontuan izatea” eskatu behar diogu, bai, baina ez “dena egitea”.**

”

aurreko belaunaldiaren jakituria iturri batzuekin moztu izanak. Arazoa da inoiz baino oinarri sendoagoak eta malguagoak behar direla. Balioei buruzko diskurtsoak eta metodoak egin nahi dira, baina balioei ez zaie eusten diskurtsoekin. Egoera horrek etxean eta eskolan eragiten du.

## **Zein dira aipatzen dituzun eremu horiek?**

Haurren autoezagutza psikologikoa da bat, haurrari bere bulkadak, asmoak, zauriak, mugak... zein diren identifikatzen laguntzea. Hor badago eremu oso bat: norberaren beldurrak, emozioak eta joerak ezagutzea.

Beste hainbat eremu ere aipatuko nituzke, guraso moduan semeek bizitzea nahiko nukeenaren haritik. Sor-kuntza da bat, haurrari bere sormenean hazten uztea zentzu guztietan. Beste eremu bat espiritualitatea da, geure geruzarik sakonena, osotasunaren bizipena, bizitzaren iturriaren eremua... Galderen, tradizio espiritualen, narrazio sinboliko handien eremu bat da. Balizkoa da, eta hautazkoa, eta ez daukat garbi eskolak zer egin behar duen horretan; beharbada, etxeko eta herriko beste erakunde batzuk betetzeko arloa da. Eskolari arlo hori ez lorrantzeko eskatu behar zaio, errespetuz tratatzeko tradizio espiritualak, erlijioak. Gai horrek kontrako pausoan harrapatu du gure belaunaldia; izan ere, jendeak oraindik beharra dauka kristautasunari egurra emateko, ‘aita hiltzeko’ joera freudiano baten antzera; baina, aldi berean, ez da ohartzen bere etika progresistaren oinarri bat horixe bera dela, zabalagoa. Eremu hori lantzeko bideak asko izan daitezke, baina, bide baten kontra jartzen bazara, ez duzu ulertu, ezin duzu benetan beste bat ondo hartu.

Beste eremu batzuk ere aipa daitezke: naturarekiko kontaktu benetakoagoa, lanbideekiko kontaktua, eta lan fisikoaren esperientzia, adibidez.

## **Nola landu azken horiek?**

Nieznaiz jakituna eskolan eta metodologian. Dena dela, lau paretetik

gehiago aterako nintzateke, naturara gehiago aterako nintzateke, hasteko. Eta haurra naturarekin harremanetan jarriko nuke, zuzenean, eta inguru hiritarrera nahiz profesionalera ere gehiago joango nintzateke. Ezagutu ditut lau paretien artean egotekoak ez diren haurrak, eta kanpoan esplorazio sen handia dutenak, baina oro har uste dut hortik ere asko duela gure espezieak. Psikologian enpirikoak argitu du esplorazio sena dela gure oinarriko sen nagusietako bat, hilabete gutxi ditugunean aktibatzen dena, eta horretan oinarritzen dela ikasteko gogoia bizitzea osoan. Sen hori garatzen uztea eta ez moztea da hezkuntzaren artea. Beste lehentasun batzuk jartzen dira askotan, ordea.

Bigarren Hezkuntzan eta Batxilergoan bereziki, iruditzen zait ikasleek herrigintzan praktikak egin ditzaketela, gizarte-zereginetik igurtzia esperimendatzeko. Euskal herriek sare antolatuta bizia daukate, arlo pila batean. Gure gizartea konpartimentuetan zatitzen dugu, ordea. Askotan, herriko sare antolatuak mundu bat dira, enpresa beste mundu bat da, eskola beste bat, gazteak beste bat, eta dena oso aparte dago. Uste dut hezkuntzak mundu horiekiko kontaktua landu behar lukeela, errealtateetan sartu behar lukeela, eta errealtateak ere eskolan gehiago sartu behar lukeela, profesionalak ekarri, irakasle-lagun figurak sortuz, kanpora irtenez eta abar. Gure herrietan jendarte antolatua nahiko bizia da, elkarte eta erakunde txiki ugari daude. Zer nahi dute horiek eskolarengandik? Seguru badituztela ideiak, galdetuz gero. Zer nahi du eskolak haiengandik? Seguru badirela gauzak, praktikak egiteko aukera, esperientziak, moduluak. Bestetik, gazteei beren etorkizunerako bokazioa edo asmoak identifikatzen laguntzeko bideak jartzea ere zeregin bat da. Nire semeak gaztarora heltzean, beren bokazioak, asmoak... zein diren intuizten hastea nahiko nuke, gustatzen zaien horrekin kontaktua eta bizipena izatea. Badakit gauza horiek guztiak esatea errazagoa dela, eta antolatzea konplexua dela.



**Esan duzunaren haritik, jendartearekin, enpresekin eta abarrekin harremanik ez badute, zaila da asmatzea zure bokazioa, soilik pentsamenduan oinarrituta.**

Gizartea konpartimentuetan zatituta daukagu, ez bakarrik mundu profesionalaren, eskolaren, herrigintza sozialaren eta abarren arabera, baita adin geruzen arabera ere. Haurren geruza, gazteen geruza, profesionalen geruza, zaharren geruza... Ematen du mundu paraleloak direla askotan. Kontaktua familiakoa da, edo bestela unean unekoa. Belaunaldiartekotasunaren zalea naiz oso. Zenbait belaunaldi zerbaitean naturalki nahasten direnean, gauza ederrak gertatzen dira, hori bai dela benetakoa ikasketa. Herrigintzan, adibidez, hori bilatu behar dugu. Herri elkarre eta ekimen askotan, nerabeek eta erretiratuek ekarpena egin dezakete, elkarrengandik gertu egonda. Garai batzuetan naturalxeagoa zen hori: haurrak parte hartzen zuen gauza produktibo batzuetan, aldi berean instrukzio fase batean zegoen, eskolan zebilen arotzaren semea, baina iltzeak sartzen zituen.

Honek lehen soilik aipatu egin du dan gauza batera narama: nire ustez, haurra gehiago jarri beharko litzateke harremanetan lanarekin, lan errealekin, eta bere ekarpen produktibo txikia egitearekin. Akaso, etxekoen ardura da hori. Niretzat, behintzat, guraso naizen aldetik, garrantzitsua da nire semeek jakitea zer den paleta bat, porlanez masa egitea, aitzurra, zerra, mailua, gauzak eraiki egiten direla, konpondu egin daitezkeela, eta beraiek egitea. Lurra, eraikuntza, oihalak, konponketa, garbiketa, sukaldea, ekoizpena. Hamabi urteko haur baten eskuetatik hamabost lanerreminta pasatuta egotea oso hezigarria iruditzen zait. Patatak zuritzeko arazoak dituzte gaur gehienek adin horretan. Berriz ere, ez naiz eskolaz ari. Eskolan, adibidez, gelaren garbiketa sistematikoa egin daiteke. Nik uste dut eskolaren garbiketa haurrek egin beharko luketela, ez garbitzaile profesionalak. Hezitzailea iruditzen zait: hau egunerok zikintzen dugu, eta garbitu egingo



dugu, txandaka, taldeak eginez.

**Eskola gehienetako curriculumak oso estuak dira. Eskola gehienek oso tarte txikia dute beren nortasuna lantzeko...**

Estatu mota hiperarautzailea dugu. Eskuin zein ezker, estatu arau-emaile bat eraiki da, gauza askotan gehiegi. Aniztasunerako, esperientziazko ausarterako, irizpide propioetarako benetan tarte txikia uzten du eskolaren arautze zurrunak. Ematen du administrazioak uniformetasuna zaindu nahi duela, inor zentimetro bat baino gehiago ez dadila mugitu denok bete behar ditugun helburuetatik. Ulertzen dut bulkada berdintzaile hori, baina antzutzaila da. Hiperarautzaile izatetik hiperarautzaile izatera pasatu gara. Nik eskola askotari-koagoa irudikatzen dut, eta apur bat libreagoa. Tokitan geratu da puntu akartu hura. Horrek badu zerikusia curriculumaren malgutasunarekin.

**Zer ikusten duzu hezkuntza prozesutik atera berriak diren unibertsitateko ikasleengan?**

Pertsona interesgarriak beti. Lehen baino irekidura handiagoa dute mota guztietako ideien aurrean, nahiz eta mundu ikuskera moderno jakin bat transmititu zaien eskolan. Kontraesan moduko bat ere badute, munduari buruzko ikuspegi kritikatzailaren eta be-

ren praktika integratuaren artean. Dena gaizki dago, baina ni ez naiz mugitzen. Energia blokeatu moduko bat dute askok. Gazte asko dago, dena den, gauzak egiten laguntzeko prest, baina ez hainbeste tiratzeko prest. Identitatearekiko eta gauza kolektiboekiko atxikimendu-modalitatea ere aldatu egin da. Badago, baina desberdina da. Dena den, joera orokorrezi ari naiz, eta beti bezala, denetik dago. Eta gosea ere sumatzen dut.

**Euskararen arloa izan da zure beste jardunbide nagusi bat. Zure ustez zer egin da ondo orain arte, eta zer hobetu beharko litzatekeela, eskolatik begiratuta?**

Esker oneko aitoren bat egingo nuke. Ikastolak eta eskolek hizkuntzarekin egin dutena lan itzela da, eskola mota guztietan. Zenbat borondate pertsonal, zenbat irakasle euskaldundu den, hizkuntza berri bat barneratuz eta hizkuntza berri hori maitatzera iritsiz. Egin denari eta egiten ari denari balio handia eman behar zaio.

Baina bada kezkatzeko motiborik. Oro har, bost hamarraldiotan euskararen inguruan egindako ahalegin kuantitatibo handia alde kualitatibotik hasi da kale egiten, ez du eman espero zen emaitza hiztun komunitatearen garapenean. Euskaraz bizitzeko hautua egitera garamatzaten txinpartek, elementu motibatzaile eta praktikoez herren egiten dute, neurri batean.

XXI. mendean euskaraz bizitzeak hautu bat eskatuko du. Ez da herritar estandarren egoera berbera, nahimen bat eskatzen du, eta hala eskatuko die gure haurren belaunaldikoei, itxura guztien arabera. Egoera horretan, eta joera estruktural horretan, ez du guztiz balio normalizazio-hipotesian edo normalizazio-fikzioan oinarritutako hezkuntzak, eta gauza bat esan dezakegu hezkuntza arautuaz: eskolak ez ditu hezten, prestatzen, belaunaldi berriak, euskal hiztun izateko behar dituzten balibideetan. Gogorra da esatea, eta erreparoa ematen du hala botatzeak. Zer balibide ba? galde dezakegu. Zer, euska-

# Jon sarasua maritxalar

E

“Ez da zentzu onekoa hemezortzi urteko euskaldun batek, eskola ibilbidea bukatuta, matematikako, fisikako, historiako eta gizarteko ehunka teoria jakitea, eta hizkuntzen dinamikari buruzko abezea ez jakitea, non eta bere bizitzan determinatzaile izango den hizkuntza desoreka batean biziko denean.”

raz irakastera eta euskararen ‘alde’ ego- tera deitzeaz aparte? Mendeko lehen hamarraldi hauetan, euskal hiztun iza- teak eskatuko ditu baliabide arrazoibi- dezkoak, emozionalak, corpusezkoak eta espresiozkoak. Beste kontu bat da eskola zenbateraino dagoen prestatuta eta zenbateraino dagokion baliabide horiek ematea. Baina bada hobetzeko tarterik.

## Arrazoibidezko baliabideekin zer esan nahi duzu?

Problematika linguistiko zail batean bizi gara, eta orain haur direnak ere hala biziko dira, edo are egoera zailagoan. Gaur egungo egoeran, euskal hiztun kontziente izatera deituta dagoen bati hizkuntzen ukipenean sortzen diren di- namikak ulertzea dagokio, egoeraren konplexutasuna ulertzea, eta bere e- rantzukizuna, bere aukerak, hor kokat- zen jakitea. Ez da zentzu onekoa heme- zortzi urteko euskaldun batek, eskola i- bilbidea bukatuta, matematikako, fisi- kako, historiako eta gizarteko ehunka teoria jakitea, eta hizkuntzen dinamika- ri buruzko abezea ez jakitea, non eta be- re bizitzan determinatzaile izango den hizkuntza desoreka batean biziko de- nean. Gazte batek jakin behar du elebi- tasun sozial orekatu bat posible den ala ez, jakin behar du hizkuntza komunita- te bat zer den, hizkuntza komunitate bat garatzeko dinamikak zein diren, hiz- kuntzak zergatik hiltzen diren, gaztele- radun elebatar baten eskubideak eta bereak nola jos daitezkeen, zer den eus- kaldun osoa izatea, zer den hiztun hart- zailea izatea, zein den bakoitzaren funt- zioa hiztun komunitatean... Hots, sozio- linguistikari buruzko gutxienekoa, e- rrealitatean modu kontzientean kokat- zeko. Horrelakorik gabe daude gazte- ak, hizkuntza minorizatu bateko hiztun izateak behar duen arrazoibidezko ba- liabide nahikorik gabe. Horrek nahiko ahul bihurtzen ditu, hizkuntza handien potentzia espresibo, sozial eta globala- ren aurrean.

Hezkuntza ekolinguistiko edo so- ziolinguistiko minimo bat lantzea ez da hain zaila. Horretarako, bada curricu-

lum ekolinguistiko bat antolatzeko au- kera, hezkuntzako beste hainbat atale- kin egiten den moduan. Gaur, badira ja- kintza eta baliabideak hori egiteko.

## Euskal curriculumak ukitzen duten gauzak dira...

Curriculumaz ari garelarik, bada beste dimentsio bat aipa daitekeena. Ez dakit asmatzen dugun benetan gure ikasleak kultur fluxu bateko parte sen- tiarazten eta jario horretan modu sort- zaile batean kokatzen. Azkenean, eus- kaltasuna, gure izaera hau, kultur fluxu bat da, ez da soilik hitz-corpus bat.

Euskarak abantaila gutxi ditu, eta desabantaila asko. Etorkizunean eus- karaz bizitzea hautatuko dutenentzat euskarak duen balio erantsi bakarreta- koa da bizi arazten digula mundu bat, mundu goxoago bat, amestu beharre- koago bat, sormen mundu bat, irekia, eta aldi berean fluxu propioduna. Eta gure balio motibatzailearen gakoetako bat izan daiteke mundu horretan partai- de eta sortzaile izatea. Ari gara hezkunt- za gako hori ulertzen?

Zentzu horretan, apur bat *hizkunt- zazentristak* izan gara. Edo hizkuntza- ren *corpuszentristak*. Ez dugu behar beste barneratu euskaltasuna kultur flu- xu bat dela, ez bakarrik hizkuntza kode bat. Fluxu irekia, etengabe kanpotik di- geritzen ari dena, tradizioa eta eraginak nahasteko modua bilatzen duena. Eta kutur fluxu horrek bere jenioa, bere in- darguneak, bere emaria duela. Eta ez dugu beti asmatu bigauza hauek egiten: Batetik, euskaltasuna kultur fluxu mo- duan transmititzen eskolan ere. Eta bes- tetik, hor haurrak eta gazteak sortzaile moduan kokatzen. Kantagintzan, dant- zaren potentzian, antzerki modue- tan, ospakuntzan eta beste hainbat gau- zatan ez dakigu oso ondo zein diren hel- buruak eta bideak. Ez, behintzat, serio, modu bateratuan eta emaitza txukune- kin. Hiztunak sortzen lagundu nahi ba- dugu, hobetzeko hiru arlo baditugu behintzat: hiztunaren arrazoibidea, hiz- kuntzaren potentzia adierazkorra eta kulturaren transmisioa.

## Basajaunekin jolasean euskaraz

**Otsagabiko eskolan Basajaunaren haitzuloa jolasa sortu zuten duela bost urte, hurrek gelatik kanpo ere euskaraz egin zezaten, eta izan dituen emaitza onak ikusirik, Nafarroako hainbat ikastetxetara zabaldu dute jolasa.**

Ikastorduetatik kanpo, gelatik atera eta berehala hurrek erdarari heltzen ziotela ikusirik, Otsagabiko eskolako hainbat irakasle burua astintzen hasi ziren... “Zer egin dezakegu hurrek euskaraz egin dezaten guk inposatu gabe?”. Duela bospasei urte hasi ziren euskara modu ludikoan txertatzen eskolako eremu guztietan: “ohartu ginen hurrei euskaraz egin zezaten modu negatiboan eskatzen geniola beti, eta horrela ez genituenez gure hizkuntzara gerturatzen, jolasten hasi ginen”, azaldu du Ane Barberia irakasleak, euren egitasmoa aurkezteko. Buruan buelta eta buelta ibili ondoren, euskararen erabilera bultzatzeko Basajaunaren haitzuloa jolasa sortu zuten irakasleek.

*“Kaixo lagunak! Ni Basajaun naiz eta Oriko haitzulo batean bizi naiz Basandererekin. Joan den irailan, Otsagabira hurbildu nintzen eta eskolako ikasleak jolas orduan erdaraz jo eta su entzun nituen. Ni oso zabarra naiz, zabarregia agian, borregatik ibar honetan euskararen erabileraren beberakada pairatu behar izan dut aspalditik. Eskolan D*



Leire Elices, Ane Barberia eta Ainhoa Zumeta irakasleak.

*eredua jarri zutenean poztu egin nintzen, eta, nabiz eta pixkanaka izan, euskararen erabilerak gora egin du azken urteotan, baina nik ez dut nabikoa ikusten eta gorakada hori indartzeko Basajaunaren haitzuloa jolasa proposatu nien Otsagabiko ikasleei. Gainera, eskola barruan Basajaunen biru morroi (biru irakasle) aurkitu nituen, eta haiek lagundu didate lan guztia aurrera eramaten”.*

Horrela laburbiltzen du Basajaun pertsonaiak berak Leire Elices, Ane Barberia eta Tasio Sanz irakasleek 2006an Otsagabiko eskolan abian jarri zuten proiektua, eta hurrengo urtean Ainhoa Zumeta irakaslea ere sartu zen Oriko Basajauna euskara taldean. Basajaun pertsonaia sortu eta horren inguruan jolas bat asmatu zuten, ikasleek “denbora librean” euskara erabiliko zutela bermatzeko. Gaur egun, bost urte geroago, eskolaren bizitzan eta programan erabat txertatua dago jolasa, eta

Otsagabiko eskolako Euskara Bultzatzeko Taldeak gidatzen du, astean horretarako ordu bat hartuz.

“Jolasaren mamia honako hau da”, azaldu du Elicesek: “Gelaz kanpoko eremuan gaztelaniaz hiru hitz baino gehiago entzuten badizkiozu ikaskideari, basatxanpon bat eman behar dizu hark”; hau da, ikasleak eurak dira ikaskideen artean euskaraz egiten dela bermatzen dutenak.

### **Giro erdaldunean, euskararen bidez talde konpromisoa garatuz**

Otsagabiko eskola Zaraitzuko ibarrean dago, eta Zaraitzu, Nabaskoze eta Otsagabiko haurrak joaten dira hara, guztira zazpi herritako haurrak. Ikastetxetik kanpo, giro erdalduna da nagusi Otsagabian.

Lehen Hezkuntzako lehen mailatik seigarrenera bitarteko D ereduko haur guztiak (ikasleen % 80tik gora) taldeetan banatzen dituzte jolasean parte



hartzeko, adin guztiak nahasten diren taldeetan. A ereduko haurrak ere gonbidaturik daude jolasean parte hartze-  
ra. Taldeka banatuta, ahalik eta basat-  
xanpon gehien eskuratzea eta Basajaun-  
en haitzuloaren ibilbidean pausoak e-  
matea da jokoaren helburua, Ori men-  
diaren irudia agertzen duen taula handi  
batean txapela eskuratzeko. Abiatze-  
ko, astelehenero lehenengo orduan  
taldeko ikasle bakoitzak bost basatxan-  
pon aurkituko ditu mahai gainean, eta  
gero, antzararen jokoan bezala, Oriko

ibilbidean urratsak aurrera egiteko  
puntuak eskuratu behar dituzte jokala-  
riek, euskaraz hitz eginez edo jolas osa-  
garrietan puntuak eskuratuz. Amaiera-  
ra iristea lortzen duentaldeak eskuratu-  
ko du txapela.

Euskararen erabilera bultzatzeare-  
kin batera, talde konpromisoa eta moti-  
bazio pertsonala sustatu nahi dituzte jo-  
lasarekin. Oro har, ikasleen parte hart-  
zea oso aberatsa dela diote irakasleek,  
“maila txikienetan hartzen dute ilusio  
handienarekin jolasa, baina, oro har,

guztien jarrera oso ona da”, azaldu du  
Zumetak. Motibazio horri eusteko eta  
ahal den neurrian areagotzeko, astea-  
ren bukaeran, ostiralean, basatxanpon  
gehien dituzten ikasleen argazkiak jart-  
zen dituzte Basajaunen haitzuloaren  
taulan, izar moduan. Eta horrez gain,  
ikasle bakoitzak bere taldearen kutxan  
sartzen ditu berak irabazitako basat-  
xanponak. “Segituan konturatu ginen  
denek edo ia denek euren argazkia iku-  
si nahi zutela taulan, eta jolasean gero  
eta gehien ari zirela murgiltzen ikasle-  
ak; horrela, gehiago saiatzen ziren hau-  
rrak saritu ditugu”. Baina istiluak ere ez  
dira falta izaten jolasarekin hastean, eta  
irakasleak gainean egotea eskatzen du,  
batez ere ikasturtearen hasieran, jolasa  
modu lehiakorrean hartu izan baitute  
Lehen Hezkuntzako ikasle batzuek.

Joko osoa Basajaunek berak gain-  
begiratzeko du, eta tarteka ikasleei me-  
zuak zabaltzen dizkie, ikasleak animat-  
zeko edo bideratzeko. Horretarako,  
ahotsezko mezuak grabatzen dituzte  
eta, gelarik gela, atean hiru kolpe jo eta  
ezkutuan zabaltzen dituzte mezuak,  
disco baten bidez. Era berean, ikasleek  
eurek ere Basajauni mezuak bidal die-  
zazkiokete, horretarako prestatutako  
postontzien bidez.

### Begien bistako emaitzak

Jolasarekin hasi eta berehala hasi zi-  
ren emaitzak ikusten eskolan. Eta gaur  
egun, bost urteren buruko emaitzei be-  
giratuta, gustura daude oso irakasleak:  
“Emaitza eguneroko lanean ikusteko  
eta, batez ere, entzuteko aukera izan  
dugu, eta oso positiboa da”, diote. Le-  
hen helburua jolas orduan euskaraz  
egitea zuen jokoak, eta hori 10. astera-  
ko konplutua zutenez, eskola ordutegi  
guztian euskaraz komunikatzeko hel-  
burua hartu zuten. “Otsagabiko esko-  
lan euskararen erabilera gora egin du  
nabarmen” dio Zumetak, “guk ezer  
esan gabe beraiek erabiltzen dute orain  
euskara”.

Era berean, jolasa zabaltzen joan da  
eskola barruan. Hasieran, Lehen Hez-  
kuntzako lehen mailatik seigarrenera  
bitarteko D ereduko haurrekin abiatu

bazen ere, 4 eta 5 urteko haurrek ere Basajaunekin jolasten hasteko nahia azaldu zuten, eta haien erritmora prestaturiko jolasa proposatu zieten irakasleek, egunero euskaraz zenbat aritu ziren neurtuz eta, horren arabera, domina jasoz edo ez; horrez gain, Basajaunen irudia gogorregia izan zitekeela ikusirik, Elurtxoren irudia asmatu zuten haur txikienentzat.

Eskolatik ere atera dute jolasa, Otsagabiko gozokien dendara hain zuzen ere. Dendan euskaraz egiten duten haurrei basatxanpon bat ematen die dendariak. Horrez gain, Basajaunen irudiaren bidez euskara bailaran zabaltzeko egin duten beste ekimenetako bat Otsagabiko bailarako euskaldunak identifikatzeko jolasa izan zen, Basajaunen eskariz egin zutena. “Identifikatu genituenean bailarako euskaldunak, Basajaunek gutun bat idatzi zien euskaldun heldu horiei ikasleekin euskaraz egin zezaten gonbidatzeko”, azaldu du Zumetak.

### Urratsez urrats

Jolasaren oinarria (hiru hitz baino gehiago erdaraz eginez gero txartel bat edo txanpon bat eman behar izatea)

Ulibarri Ikastetxeetako Hizkuntza Normalizazio Programatik hartuta dago, baina Basajaunen historia guztiarekin jantzi dute jolasa Otsagabikoek. *Basajaunaren baitzuloa* izeneko jolasak gauregun duen forma hartu arte, baina, urratsak egiten eta jokoa garatzen joan dira irakasleak, asterik aste eta urterik urte hainbat berrikuntza sartuz. “Asterik aste ikasleen motibazioa pizturik edukitzeko gauza berriak sartzen joan gara, eta motibatzea lortu dugu horrela”, gogoratu du Barberiak. Lehenik jolas ordurako joko batzuekin hasi ziren; ondoren, Basajaunen irudia sortu eta mezuak grabatu eta zabaltzen hasi ziren; gero, basatxanponak eta superbasak sartu zituzten; ondoren, Basajaunen haitzuloko taula sortu zuten; eta azkenik, izarren bidez nabarmendu dute ikasleen ahalegina. Jolasak hain dimentsio handia hartu du Otsagabian, ezen Basajaunen bideoa, bideoklipa, abestia eta elastikoak ere egin baitituzte. Eta ikasturte bukaeran Basajaunen festa egiten dute, gutxienez izar bat lortu duten ikasleentzat domina eta diploma banatzeko, eta euskal dantza eta erromerierekin osatzen dute jaia.

Nafarroako Gobernuko Euskara

Zerbitzuak euskara bultzatzeko berrikuntza saria eman dio bi bider jolasari, eta diru hori euskarazko materiala erosteko baliatu dute irakasleek.

### Beste ikastetxeetara zabalduz

Otsagabian duela bost urte jolas hau sortu eta bultzatu zuten irakasleetako bi, gaur egun, beste ikastetxe batzuetan daude, eta ikastetxe horietara zabaldu dute euskara sustatzeko jolasa.

Ane Barberiak Erronkarin zabaldu du jolasa, eta ondoko bailarara egokitu dute egitasmoa, Maruxa sorgina baliatuz haurrak euskarara gerturatzeko. Aurretik Iruñeko Sanduzelain eskolara eramane zuten, eta han Blaitxoak eta urrezko txanponak sartu zituzten, asmo berberarekin. Leire Elicesek Sakana eraman du jolasa, eta Etxarriko eskola publikoan eta Iturmendikoan zabaldu du gaur arte.

Ikastetxe bakoitzak bere testuingurura moldatu du jolasa. Erronkariko bailarako herrietan barrena Maruxarekin egin behar dute ibilbidea, eta puntuak emango dizkieten jolasak jinkana modukoak izango dira, puzzle bat osatzen joango dira, bailarako herri bakoitzera iristen doazenean lortzen dituzten piezekin.

Otsagabian bezala, emaitzak begien bistakoak dira beste ikastetxeetan ere. Iruñeko Sanduzelain eta Erronkarin bertan ere lau hilabetera emaitza onak ikusi dituztela dio Barberiak, “euskaraz saiatzen direla nabarmen ikusten da”. Etxarriko eskola publikoan ere aldaketa nabarmena dela dio Elicesek, “lehen joera handia ikusten zen gaztelaniaz hitz egiteko, eta, orain, euskaraz entzuten da beraien eremuan, gu sartzen ez garen eremuan”.

Otsagabitik Erronkari, Sakana eta Iruñera..., orain arteko emaitza onak ikusirik, harago zabaldu nahi dute jolasaren sortzaileek proiektua. Horretarako, aurrera begira jolasaren materiala argitaratzea izango litzateke lantaldearen hurrengo helburua, beste ikastetxe batzuen esku jarritz euskarri eta materialak, edo jolasaren gida orokorra, gutxienez. ●



## *Ipuinaren Astea* Hernaniko Langile Ikastolan



**Hernaniko Langile Ikastolak, Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako ikastetxeak, itxura berezia hartu zuen iragan apirilean, *Ipuinaren Astea* antolatu baitzuten ikasle, irakasle eta gurasoek. Atarian, geletan, pilotalekuan, areto nagusian, ganbaretan... ipuinak kontatu eta interpretatu zituzten Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako haurrek.**

Baina lanak lehenago hasi ziren, noski. Hilabete asko lehenago. Ideia Euskara Batzordetik atera zen, eta Langile Ikastolako komunitate osoa (ikasleak, irakasleak eta gurasoak) euskararen inguruko jardura batean inplikatzeari zela helburua. “Ipuina denontzat da motibagarria, txikiarentzat nahiz handiagoentzat; moldagarria da eta eskolako komunitate guztian lanak partekatzeko aukera ematen duena”. Horrela aurkeztu du proiektua Mari Karmen Rodriguez Euskara Batzordeko kide eta Lehen Hezkuntzako irakasleak. “Gainera, haur guztiei ematen die aukera besteei zerbait eskaintzeko; eta, ondorioz, besteentzako zerbait jasoko dute haur guztiek ere”. Euskara Batzordetik ipuinaren gaia lantzeko ideia atera eta, klaustroak

onartu ondoren, lanean hasi ziren irakasleak, ikasleak eta gurasoak.

Mailaz maila ipuinaren inguruko jardura bat edo ekintza bat prestatzen hasi ziren, klaustroak *Ipuinaren Astea* egin eta onartu ondoren. Gelarik gela, zein ipuin landuko zuten aukeratu zuten lehenik; askok eta askok ipuin klasikoak aukeratu zituzten, Hiru Txerriak, Hansel eta Gretel... Baina izan zen ipuin bat sortu zuen gelarik ere, edo hain klasikoak aukeratu ez zituenik ere. Ipuina aukeratu ostean, ipuin hori nola eskaini edo interpretatu zuten erabaki zuten gelakideek: kontaketa bidez, antzezpena eginez, txotxongilo bidez, irakurri eta dramatizatu... .

Ondoren, zein gelak zeini zer eskainiko zion erabaki zuten, proiektuaren

puntu garrantzitsuetako bat partekatzea izan baita: guztiek zerbait (ikuskitun bat, antzezlan bat, irakurraldi bat...) eskaintzea beste geletako kideei; eta, beraz, haur guztiek ondoko gelaren batek prestatutako emanaldia ikusteko aukera izan zuten. “Adin desberdinen arteko harremana ikasturte osoan zaintzen dugu Langilen, baina jarduera honen helburuetako bat, bereziki, harreman hori lantzea izan zen. Eta lortu genuen”, argitu du Jone Santamaria Haur Hezkuntzako irakasle eta euskara batzordeko kideak.

Eta, azkenean, iritsi zen *Ipuinaren Astea*, apirilean, Aste Santuaren aurretik. Eta ipuinez bete ziren gelak, pilotalekua, ganbarak, ataria... “Espazio guztietara zabaldu genuen ipuina, gelarik gela ibili ziren haur batzuk beren antzezlan egiten... Orain, haur batzuk egiten eta besteak ikusten aritu ziren; gero, besteak egiten eta hauek ikusten”. Gurasoentzat ere prestatu zuten hainbat emanaldi. “Pena bakarra izan genuen”, diote irakasleek, “hainbeste lan egin ondoren, eta hain ikuskizun ederrek prestatu ondoren, bakoitzak emanaldi bakarra izateko aukera edukitzea”.

### Antzezpena, sormena eta eskulana lantzen

Proiektua gauzatu ostean, eta balioespena egiteko unea iritsita, Euskara Batzordeko irakasleek gurasoen parte hartzea nabarmendu dute. “Eskulanean lagundu dute batzuek; beste batzuek, berriz, ipuinak ikasten lagundu dute, eta beste talde batek Hansel eta Gretelen historia kontatu zuen”.

Hizkuntza lantzearekin eta hizkuntzarekin gozatzarekin batera, jarduera horrekin haurrek antzezpena, sormena, eskulana eta, gai direnek, buruz ikastea eta irakurmena landu dituzte. Buru-lana egin behar izan dute, denen artean erabaki baitute zer ipuin eta



nola eskainiko duten, pertsonaiak nola aurkeztu eta interpretatuko dituzten; testua eta haren egitura landu dute, paperetik interpretaziora nola pasatu erabakitzean; eta, gainera, papereko hori etxean eta gurasoen laguntzarekin buruz ikasi beharra izan dute haur askok, gero jendaurrean eskaintzeko. Horrekin guztiarekin batera, eskulana ere landu dituzte hilabete horietan guztietan, dekoratuak prestatzen lan handia egin baitute. Kasu batzuetan, muralak marraztu dituzte, besteetan agertokiak apaindu dituzte, mozorroak ere prestatu dituzte... “Guraso askok lan ederrak egin dituzte!”. Hainbeste, ezen, *Ipuinaren Astea* igaro ostean ere, hainbat gela eta ganbara apainduta utzi baitituzte oraindik ere.

*Ipuinaren Astea* luzea izan da, beraz, Hernanin, bai prestaketa-lanek hilabeteak hartu dituztelako, baina baita gozatu ere ez dutelako *Ipuinaren Astean* bakarrik gozatu, inauteriak ere baliatu baitzituzten lantzen ari ziren ipui-

neko mozorroak erabiltzeko.

*Ipuinaren Asteak*, euskararen inguruko jarduera batean komunitate osoa elkarlanean jartzeaz gain, ipuinaren beraren garrantzia azaltzeko balio izan du ikasleen, irakasleen eta gurasoen artean. Gainera, bereziki azken horiei begira, hainbat jarduera osagarri eskaini zituzten ikastolan, ipuinaren garrantziaz jabetzeko. Beatriz Egizabal ipuin kontalariak ipuinaren garrantziari buruzko lantegi bat eskaini zien gurasoei, eta, horrez gain, hiru emanaldi egin zituen, marrazkilariaren laguntzarekin.

Lan handia eta luzea izan den arren, irakasleei balioespenez galdetuta, baitetik, oso positiboa izan dela diote, ipuinaren bidez euskara, kontzeptuak, interpretazioa eta eskulana landu dituztelako, adin bakoitzari egokiturik; eta, bestetik, komunitate guztia jardueraren baten inguruan bildu dutelako. Eta hurrengo urteetan ekimenarekin segitzeko borondatea dute. ●

## Nola jokatu beharko genuke eskolan sormena lantzeko



Haur txikiek harreman handia izan behar dute kalearekin, naturarekin. Haur txikiei eta beraiantzako prestatutako hezkuntza-egiturei erreparatuz gero, eskolek komunitate horretatik bereizita jardun ez dezaten, sormenaren gakoa, Finlandian bederen, eskola horiek inguruko komunitatean txertatzean dago, nire ustez. Horixe da Finlandiako eskolen ahulezia. Barne antolamenduan, eskola sendoak dira, baina ez daude komunitatean hain sendo txertatuta. Ikaskuntza horri buruz pentsatuz gero, gela barruan ikasten denaren eta gelatik kanpo gertatzen denaren arteko loturak aztertu beharko genituzke lehenbizi: zer gertatzen da eskolatik kanpo? Nolakoa da kanpoko bizitza erreal? Joko interaktiboa sortu beharko genuke, gela barruko eta eskolatik kanpoko errealitatearekin.

Horretarako, eskolek lankide berriak bilatu behar dituzte beren komu-



**Yrjö ENGSTRÖM**  
HELSINKIKO UNIBERTSITATEA

nitateetan, eta eskoletatik kanpo atera behar dituzte haurrak, bizitzako hainbat arlo ikertzera, eskolara itzultzera koan haien gainerako gogoeta eta jarduerak egiteko. Betidanik egin izan dira irteerak noizbehinka, baina, gaur

egun, erronka handiagoa da, haurrek sareko edo Interneteko mundua ere bizi dutelako. Mundu ireki horrek oso bestelako dimentsioa du, eta hainbeste joko eta hainbeste irudi erabiltzen dituzenez, baliteke eskola gai ez izatea errealitate birtual horrekin lehiatzeko. Nire ustez, eskola, bera bakarrik, ahulegia da, beste era bateko hezkuntza-bizipenak bilatu beharko lituzke, elkarlanean oinarritutako beste eredu batzuk sortzeko, bai eskolarentzat eta bai beste erakundeentzat ere.

Ez da erraza elkarlan hori lortzea, ez eskolarentzat eta ezta irakasleentzat ere. Irakasleak, oro har, ohituta daude gela barruko jardunera, eta ez da horren erraza izaten kanpoan aritzea. Eskolaz kanpoko jendeak erantzukizuna eta ardura eskatzen ditu, eskolaren babesle bihurtu behar dutelako, beren atea ireki behar dituztelako...

Badaude, bai, adibideak: eskolen



eta Opera Nazionalaren arteko lankidetza, adibidez, haurrekin batera lan batzuk egiteko adostua. Adibide solteak dira, baina, horretan ez dago berezko ikuspegi pedagogikorik. Museoen eta eskolen arteko elkarlanak ere beste adibide solte batzuk dira... Zubiak eraiki beharraz hitz egiten da, baina zubiak eraiki baino zerbait gehiago egin behar da, elkarlan horrek ezin baitu noizean behingo bisitetara mugatu.

Alemanian, Berlin hiriburuan, adibidez, hiri osoa eskola bihurtzen da zenbaitetan, eta, hala egokitzen denean, hiri guztia jartzen da hezkuntza-helburuen esanetara. Aitortzen dut horra iristea zaila dela; baina, aurrera begira, beharrezkoa izango da eskolaren zabalakunde edo irekitze hori. Finlandiako eskoletan, hutsune horiek ikusten ditugu.

Jakina da, bestalde, Finlandiako ikasleek maila handia lortzen dutela, PISAko azterketak dira horren lekuko. Arazoen zioak, haatik, ugari dira: hamar, hamabi, hamahiru edo hamalau urteko haurrak ez daude motibatuta, ez dute gustuko eskola, eta, horri guzti horri aurre egiteko, beste esperientzia mota batzuk eskaini behar ditu eskolak, hasiera-hasieratik.

Badira mugimendu berriak, batik bat haur-eskoletan: eskola izadiaren erdian kokatzen dute, eta izadiak baliatzen dira izadiaren eskolak eratzeko; eskolaz kanpo, denbora luzea pasatzen dute hainbat inguruetan esperimentatzen, eta natura-ingurune horietan nola jokatu ikasten dute. Mugimendu interesgarria izan liteke hori, baina aparteko ekimenak dira horrelakoak. Mementoz, han-hemenka egiten diren ahalegin solteak baino ez dira...

Irakasleei, behintzat, ahalegin berezia egitea eskatzen die horrek, ezin da klik batean lortu, noski. Eta, oraingoz, beste herrialdeetako esperientziak ezagutzea eta alderatzea litzateke kontua, kontzeptu horiek modu inklusiboagoan aztertzea, alegia. Izan ere, irakasleak ez badira trebatu ikuspegi horretan, nola jarriko dute indarrean haurrekin?

## Ingurumenaz gain, beharra eta elkarlana ere sormenerako lagungarriak dira

Finlandiako eskola-sistema oso modu tradizionalan lantzen da, batez ere, gela barruko edukietan oinarritzen delako. Hala ere, sormenaren esparruan aurrerapen ugari egin dira, bai, eta, bereziki, eskolaz eskola joaten bazara ikusten dituzu. Bertakoentzat egindako berrikuntzak ikusten badituzu ere, ez dira askorik zabaltzen, bertan eta bertakoentzat geratzen baitira. Ona litzateke horiek ezagutaraztea, esperimentatzea eta elkarlana sustatzea.

Badira zenbait esperientzia interesgarri, herriko hainbat enpresarekin egindako lankidetzetan eta abar, baina zaila ari da gertatzen hori ere behar bezala garatzea. Une honetan, bada horrelako mugimendu bat, non negozio askok merkataritzagunetzat hartzen dituzten eskolak; eta hori ere ez da guk nahiko genukeena. Kontu handiz negoziatu eta garatu beharreko helburua da. Ez dugu nahi eskolak produktu berriak edo enpresa pribatuak merkaturatzeko gune bihurtzea, ikasteko beharrak bultzatutako elkarlana izan behar luke, eta ez merkaturako arrazoiek bultzatutakoa. Ikusten denez, askotariko tentsioak eta interesak elkartzen dira elkarriketa horretan.

## Curriculum itxiak edo zurrunk ez du batere laguntzen

Jendea gero eta gehiago jabetzen da aldaketaren beharraz, hainbat arlotan horixe aipatzen da etengabe; baina oraindik ez da formularik aurkitu, oraindik ez da lortu politikan ezagutua izango den ahalegin zabalago hori... Hala ere, esango nuke badela alderik, leku batetik bestera. Adibidez, Finlandiako curriculum eskolen autonomian oinarrituta dago. Oinarritzko curriculum bat dago, irekia, eta eskola bakoitzak garatzen du berea. Udalek hezkuntza-eskumen handiak dituzte, eta gestioa oso gertukoa da. Hori, berez, oso ona da. Baina, askotan, inertziak direla-eta, autonomia hori oso era kontserbadorean

## Eskolek lankide berriak bilatu behar dituzte beren komunitateetan, eta eskoletatik kanpo atera behar dituzte haurrak bizitzaren hainbat arlo ikertzerara, eskolara itzultzera haren gaineko gogoeta eta jarduerak egiteko.



erabiltzen da, eta ez da asko aurreratzen. Uste dut beharrezkoa izango dela ahalegin bateratu bat egitea, eskolak aurrerapausoak ematera bultzatzeko. Esan beharrik ez dago babes handia izatea eskatzen duela horrek, eta, beraz, eskolentzako babes mota berriak bilatu behar dira. Hortxe dago, seguruena, unibertsitateen zeregina: askotariko eragileen orkestratzearen emaitza izan beharko luke. Eskolan, gizartean eta unibertsitatean, beharrezkoa izango da denon elkarlana, bakoitza bere aldetik ibiliz, ez baita aurrerapenik gertatuko. ●





Ume-eramaileak eta Haziera  
Portabebés y Crianza



# Laura Gutman Donostian

Otsailaren 21ean, asteartea,  
17:30etatik 20:30etara **Donostian**

MEITAI MAITIEK *"El poder del discurso materno"* titulua duen Laura Gutmanen hitzaldia antolatuko du, gure gizarteari amatasun, haziera eta familia loturetan mundu mailako espezialista den pertsona gerturatzeko intentzior.

Irakasle, maisu, hezitzaile, bitartekari, mediku, psikologo, gizarte langileak, emagin, doula, erizain, politikoko, pentsalari, aita eta ama, mundu hobe baten alde egin nahi duen oroari zuzendua.

### 3 orduko HITZALDIA

Bi orduko azalpena eta ordubete publikoak egiten dituen galderak.

**Laura Gutman**en liburuak salduko dira, azkena bane, *"El poder del discurso materno"*, oraindik dendetan ez dagoena. Hitzaldi amaieran Laura Gutmanek liburuak sinatuko ditu.

Laura Gutman-i buruzko informazio gehiago:  
[www.lauragutman.com.ar](http://www.lauragutman.com.ar)

SARRERAK EROSTEKO

Tel> 627 418 907

Tel> 635 700 986

@ > [info@meitaimaitie.com](mailto:info@meitaimaitie.com)

[www.meitaimaitie.com](http://www.meitaimaitie.com)

MEITAIK BANDOLERAK

ESTALKIAK MOTXILAK

FULARRAK MUSELINAK

OIHALEZKO PARDELAK

OSAGARRIAK JOSTAILUAK



Bide eginean jarraitzen dugu zuen  
ekarpenekin eta parte-hartze  
handiagoarekin aberastu nahi dugularik.



Hik Hasi proiektua irekia  
den heinean, interesa duen edonoren  
parte-hartzea gustu handiz hartzen dugu.

Jar ezazu zure aletxoa euskal  
hezkuntzaren  
aldeko ekimen honetan.

urtarrila

berriak

# Nerabeak, Interneteko sare sozialak eta euskara

Soziolinguistika Klusterrak eta Kultur Kabia-Topagunea elkarlanean aritu dira nerabeak, sare sozialak eta euskara kontuan dituen esperientzia burutzen. Proiektuak bi helburu zituen: batetik,

aisialdi programetan sare sozialen bidez nerabeen euskararen erabileran eragitea; eta bestea, hizkuntza-portaeratan sare sozialen bidez eragiteko esku hartzeen baliagarritasuna aztertzea.

Egitasmoaren ezaugarriak, emandako urratsak eta lortutako emaitzak bilduta daude helbide honetan: [www.soziolinguistika.org/nerabeaksaresozialak](http://www.soziolinguistika.org/nerabeaksaresozialak)

## “IKASTEA” Webgune berria

*Ikastea.hezkuntza.net* webgune a zabaldu du Eusko Jaurlaritzak. Ataria “hezkuntza arloko kide guztien topaleku” izateko helburuarekin sortu dute.

Webguneak lau atal ditu: ikasleak, irakasleak, familia eta ikastetxea. Orrialdea euskaraz, gaztelaniaz eta ingelesez dago eta haren helburua parte hartzea

da “hezkuntza hobetzeko ezinbesteko elementua delako eta aldetak iraunkorrak izatea ahalbidetzen duelako”. [www.ikastea.hezkuntza.net](http://www.ikastea.hezkuntza.net)

## Hezkuntza presoen alde baraualdian



Presoen eskubideen alde egun bateko baraualdia egin zuten irakasleek, ikasleek, ikasle Abertzaleek, Euskal Herriak Bere Eskolak eta hezkuntzako beste hainbat eragilek. Baraualdiak astebeteko iraupena izan zuen, eta bertan, egunero arlo desberdinetako kideek parte hartu zuten: sindikatuak, gazte mugimenduak, hezkuntzak, mugimendu feministak eta Udaletako eta Foruetako ordezkariak.

## 20.270 ikasle bertsolaritza lantzen

9.394 ikasle dira Haur Hezkuntzatik DBH bitarte eskola orduetan bertsolaritzari lotutako saioak egiten dituzten ikasleak Gipuzkoan. Izan ere, bertsolaritza transmisioa sendotzeko, Bertsozale elkarteak eskolak ematen ditu Gipuzkoako 125 ikastetxetan. Bertsozale Elkartearen ekimen hori Euskal Herri osokoa da eta beste 260 ikastetxe ari dira gipuzkoarrekin batera lanean, guztira 20.270 ikasle, iaz baino 2.828 ikasle gehiago. Irakasle lanetan, berriz, 36 lagun ari dira.



# Haur Hezkuntzaren garrantziaz

Euskararen Kontseiluak *Haur Hezkuntzaren garrantzia euskararen jakuntzaren eta garapenean izeneko jardunaldia* antolatu zuen Miramar Jaurerian.

HUHEZIKo irakasle Karmele Perezek, *Arlo emozionalak edo enpatiak irakaskuntza-ikaskuntza prozesuan duen garrantzia* ikerketa aurkeztu zuen. Marijo Ezeizabarrena, Andoni Barreña eta Iñaki Garcia irakasleek, berriaz, *Haur euskaldunen komunikazio-garapena neurtzeko KGNZ tresna* 8-50 hilabete bitarteko haurrekin egindako ikerketaren emaitzak aurkeztu zituzten. Ondoren, Lakuntzako (Nafarroa) ikastetxe publikoko, Hendaiaiko (Lapurdi) Ikastolako eta Tolosako (Gipuzkoa) Hirukide ikastetxeko kideek beren esperientziak aurkeztu zituzten. Mahai-inguru batek eman zion amaiera goizeko saioari, bertan Paulo Iztueta



soziologoak eta Karmele Perez eta Andoni Barreña irakasleek parte hartu zuten. Arratsaldean, Vic-eko unibertsitateko (Herrialde Katalanak) Vanesa Amat eta Llorenç Comajoan irakasleek *Haur Hezkuntzako 0-6 aldiko bizkuntza-murgiltzeari begirada bat: esperientziak eta hausnarketak* hitzaldia eskaini zuten. Bertan adierazi zuten hi-

ru eleko hezkuntza eredu bat egokia dela betiere hizkuntza gutxituei kalte egiten ez dien heinean, eta jolasa hizkuntza ikasteko baliabide gisa defendatu zuten.

Jardunaldian Kontseiluak *Nola artikulatu jakintza-arloa eta bizkuntza? Zenbait lanabes eskolan erabiltzeko* liburu berria aurkeztu zuen.

centroderecursos@alboan.org

**ELKARTASUNEAN  
HEZTEKO  
BALIABIDEAK  
ESKURA,  
KLIK BATEAN**

Unitate didaktikoak  
Jolas kooperatiboak  
musika pelikula...

<http://centroderecursos.alboan.org>

Laguntzaileak:

Material guztiak hemen har ditzakezu mailaguan:

**Bilbao**  
Padre Lojandín, 1  
Tel. 944 059 561

**Iruñea**  
Avenida Barasoain, 2  
Tel. 948 231 301



**Hik hasiren web gunean dugun EZTABAIDAGUNEA paperera ekarri dugu. Hilero, web orrian jasoko ditugun iritzien laburpena izango duzue eta baita hurrengo galdera zein izango den ezagutzeko aukera ere. Hona hemen azken eztabaidak utzi diguna...**

**>>> Hamaika buruhauste izaten ditugu eguneroko jardunean. Haien artean, geroz eta ozenago eta bazter gehiagotatik, kezka nagusi bat zabaltzen ari da lau haizetara. Gure arreta bereganatu du kezkak eta hausnarketa laguntze aldera jarri nahi izan dugu hemen gure ale. Galdera bota dugu eta hona zure irakurleek zer esan diguten: *Nola hezi behar ditugu hurrengo belaunaldiak?***

**>Bai**

Bukaera ez dizut ongi ulertu baina bai aurrekoa, ez dut ulertzen nola hala gizartean, gizarteko arazoetan lanean ez dabilen irakaslerik. Nola prestatuko dugu gizarterako, geu gizartean ongi inplikaturik ez bagaude? Aspalditik pentsatzen dut haurrak ez direla pasotak, irakasleok baizik. *Josu.*

**>Earra, Iosu!**

Ni ez naiz irakasle, baina badut hezkuntzarekin harremana. Seme-alabak ditut ikasten, eta badago aldea irakasle batetik bestera, bai horixe! Desberdinak izatea bizitzaren legea da, eta aniztasun horrek aberastasun iturria da niretzat. Baina ulertzen ez dudana zera da, ikasleak bizitzarako prestatu behar ditugula esan eta hain inkohherenteak izatea esaten ari garen horrekin.

Garbiago litzateke etxerako, lagunekin ibiltzeko, jainkoarekin harremantzeko, selektibitateko eta, agian, lanerako prestatzen dituztela esatea. Normalean, praktika horixe da-eta.

Nik dena den, gizartean bizitzeko hezi behar ditugula pentsatzen dut. Zehazki esanda, gizarte edo jendarte hobea egiteko hezi eta prestatu behar ditugula uste dut. *M. Fresno*

**>Krisi ekonomikoan elkartasun balioak**

Elkartasuna da nire kezka nagusietakoa. Krisi ekonomikoak bestelako krisiak omen dakartza, balioenak ere bai. Egunkariak ireki, telebista piztu eta gehien ikus eta entzun dezakegun hitza da gaur egun. Horrek, intseguritatea sortzen du, eta honek, aldi berean, BELDURRA. Oso harriskutsua bihurtzen da pertsona beldurtia. Horregatik, eskolan eta etxean beldurrari aurre egiteko bideak eta aukerak aztertu behar ditugu. Horien artean, elkartasuna dago, dudarik gabe. Ikasleekin aztertu, egoerak bizi behar ditugu, elkarri lagunduz indartsuagoak bihurtzen garelako frogatu egin behar ditugu. Elkartasunak berarekin dakarren konplizitate eta maitasuna bizi behar dugu. Hala, beldurra uxatzen ikasiko dugu eta gizarte zoriontsuagoa egingo dugu. Ez al duzue uste? *Iturriozpe*

**>Izugarrizko arazoa**

Hezkuntzan aritzeko ikasi eta gero ez dago lanik. Hori da nire kezka nagusia. *Ilazki*

**>Neu ere berdín**

Iepa Ilazki! Neu ere berdín nago eta "de buena tinta" dakit ez garelako bakarrak... krixton arazoa dago kalean hezkuntzarako prestatu garenon aldetik eta gaur egun prestatzen ari direnak... a ze etorkizuna! Eta orain oposaketak... HHrako 41 lanpostu... penagarria. *Eider*


**Datorren hilabeteko eztabaidarako galdera...**

**>>> Berdinak jarraituko du.**

**Gure buletin elektronikoa jaso nahi al duzu?**

Zure helbide elektronikoa Hik Hasiri buruzko azken berriak eta hainbat albiste jaso nahi badituzu, gure buletin elektronikoa harpidetu besterik ez duzu egin behar. [www.hikhasi.com](http://www.hikhasi.com) web orrian izena eman, eta etxetik mugitu gabe jasoko duzu Hik Hasiren berri!

# argitalpenak



## Bainura!

Taro Gomi  
PAMIELA

Haur hizkeraz idatzitako ipuina, hurbilekoa eta erakargarria bihurtzeko: onomatopeiak, ikus- eta hitz-jolasak. Taro Gomi-ren obraren ezaugarrien artean sormen askatasuna eta gizarteko lotsa edo ahalkiak ezarritako arauekin hausteko joera daude. Ilustratzaileak umearen biluztasuna erabateko naturaltasunez irudikatu du. Txikieneztat. •



## Eguzkia puxtarrarian

Karlos Santisteban/ Jon Zabaleta  
IBAIZABAL

Etxahunek, ustekabeen, puxtari bat aurkitu zuen. Puxtarrarian argi-izpi batek dir-dir egin zuen, eta bat-batean, Etxahun eguzkiarekin hizketan hasi zen. Gero, eguzkiraino bertaraino iritsi zen, baina han hotz egiten zuen...


Matxinsalto bildumako gainerako ipuinak bezala, bi edizio ditu, batueraz eta bizkaieraz. 8 urtetik aurrera. •



## Platonon urmaela

Fred Andrews/ Lide Azkue  
ELHUYAR

Misteriozko istorioaz gain, polizia-nobela eta abentura eta detektibe istorioa ere bada. Umorea eta suspentsea ditu, zientzia eta fikzioa ere bai. Klabeen idatziriko oharren bidez, irakurlea Gaiako ekosistemetan murgiltzen da. Lurraren eta Gaia lurraldearen arteko atea zabaltzeko giltza eskuratzeko zazpiegundituzte, bestela ezingo dira etxera itzuli. 12 eta 16 urte bitartekoentzat. •



## Nazio baterako mapak

Jose Mari Esparza  
TXALAPARTA

Mila mapatik gora biltzen ditu: azken mendeetan lau edo zazpi euskal probintziak jasotzen dituen editatutako kartografia. Halaber, euskaldunen herriaren izenaren historia aztertzen du mundu osoko literaturan, entziklopedietan, bidaiariaren liburuetan... Izen bat, lurralde bat, historia bat, agerikoa azaltzeko beharrezko liburu bat. •



## Motozerra

X. Mendiguren /A. Akerreta  
ELKAR

Bikote bat autoan, gauez, errepide galdu batean. Autoa matxuratu egin da, eta laguntza bila atera dira. Ez dago bizi-arrastorik inguruan. Ibiltzen hasi, eta etxe bat sumatzen dute urrunean: etxe zahar, porrokatu bat; bertara jo eta atea irekitzen diena, beriz, gizon zatar, baldar, begibakar bat... 12-16 urte bitartekoentzat. •



## alboan.org

aldizkaria  
Alboan GKE

Kalean da jada aldizkari honen 60. zenbakia. Bertan, Peruko amazoniako ekoizpen garapenari buruzko erreportaia, Merlys Mosquerari elkarrizketa eta hausnarketa, berriak eta boluntariadoaren gaineko atalak ditu. Aldizkariarekin batera 2010 txostena kaleratu dute. •

# ... nora joango gara?

## LACTURALE Esne-behiak ezagutzeko zentroa

**Esne-Behien Interpretazio Zentroa Etxeberrin (Nafarroa) dago, Irurtzundik oso gertu, Madotzerako bidean, Aralarreko magalean.**

**Gure eguneroko bizimoduak eta globalizazioak nekazaritza-mundutik urrundu egin gaituzte. Haatik, naturak eskaintzen dizkigun baliabideei esker bizi gara. Baliabide horien artean dago esnea.**

**Lacturalek gure bizitzako aro guztietan esneak duen garrantziari buruzko esperientzia eskaintzen digu. Interpretazio-zentroan, kalitate goreneko esnea prezio eskuragarrian ekoiztea helburu duen taldea aurkituko dugu, filosofia horixe baitu oinarri. Bisitan, Lacturale behi-haztegiaren eta Esne-Behien Interpretazio Zentroaren berri izango dugu.**

Behiak osasuntsu jaten badu, osasuntsu haziko da, eta osasuntsua izango da, baita, ematen duen esnea ere. Zenbateraino ezagutzen ote dugu gure katiluko esneak egiten duen ibilbidea? Zer dakigu esne hori eman duen behiaz, hura zaintzen duenaz? Nola eragiten ote du gure osasunean?



Alde horiek guztiak ezagutzera emateko asmoz, Lacturale Nafarroako esne-behien abeltzain-kooperatibak ustiategiak ireki ditu, jendeak ikus dezan non eta nola bizi diren behiak, eta nola zaintzen dituzten. Ustiategi horietako batean, Etxeberrin, Iruñetik gertuen dagoenean, ipini dute interpretazio-zentroa. Ustiategi horretan daude kooperatibak Nafarroa guztian dituen 6.000 abelburuetatik 968.

Lacturale Esne-Behien Interpretazio Zentroa zentzumenen bidez ikasteko hezkuntza-baliabidea da: entzumenaren, ikusmenaren, usaimenaren, ukimenaren eta dastamenaren bidez. Horregatik, zentroan, haurrak behiak

ukitzen ikusiko ditugu, behiei jaten ematen eta abar.

Ustiategian dauden pabilioi, silo eta hozte-depositu artean, jezten denetik kontsumitzen dugun arte esneak egiten duen ibilbidea ezagutuko dugu urratsez urrats. Era berean, esne-behien bizi-zikloa ulertu eta ikusi egingo dugu. Interpretazio-zentroan, behiek jaten dutenaren, haien ongizatearen, jezteko moduaren, haien hondakinen kudeaketaren eta abarren berri izango dugu.

Nork eta nola zaintzen ote ditu behiak, ordea? Ustiategian bertan behiak zaintzen dituzten pertsonak ezagutu ahal izango ditugu, haien bizi-





moduaren berri izango dugu zuzenean, eta azken urteetan haien bizimoduak izan duen bilakaera ikusiko dugu.

Funtsezkoa da gure lurra ezagutu eta errespetatzea. Eta, lur horretan bizi diren animalien, eta, zehazki, esne-behien balioa ezagututa, garrantzitsua da gure jakiek eta haien elikagaiek gure osasunean duten eraginaz jabetzea.

Interpretazio-zentroaren helburua irakasleentzat eta ikasleentzat nekazaritza-mundura hurbiltzeko hezkuntza erreferentzia gune bat izatea da, eta gurasoentzat eta seme-alabentzat, berriz, familia aisialdirako zentro natural bat izatea.

Lacturale kooperatiba 2005ean sortu zuten 25 abeltzainek, beren ustiapenetan ekoitzitako esnea merkaturatzeko elkartzearabaki ondoren. Indarrak batzeaz gain, kooperatiba horietan erabiltzen duten sistema berritzailea bultzatu nahi dute: Esne-Behiaren Ekoizpen Arrazionala.

Abeltzainek berek sortutako kooperatiban, errespetuan oinarritutako filosofia zabaldu nahi dute, ingurunea, animalien ongizatea, abeltzaina edo ekoizlea eta kontsumitzailea errespetatzeko.

## LACTURALE ESNE-BEHIEK INTERPRETAZIO ZENTROA

Madotz, z/g  
31868 ETXEBERRI  
Tel.: 948 600 449  
visitas@lacturale.com  
www.lacturale.com



### ORDUTEGIA

Astelehenetik igandera. Ordua aldeztu aurretik hitzartu behar da. Bulegoko ordutegia: goizeko 9:00etatik 15:00etara. Nahi adina informazio eska dezakezue.

Ezinbestekoa da taldeek bisitatzeko hitzordua hartzea.

### BISITAREN DESKRIBAPENA

**Bisita gidatuek ordu eta erdiko iraupena dute. Eta, oro har, hauek dira bisitaren helburuak:**

- \* **Esneak sorreratik kontsumitu arte egiten duen ibilbidea erakustea.**
- \* **Esne-behien bizi-zikloa ezagutzea.**
- \* **Esne-behien ustiapenetan lan egiten duten pertsonen bizitza nolakoa den ezagutzea, eta azken urteetan izan duen garapena ikustea.**
- \* **Ekoizpen integratuaren prozesua eta abantailak *in situ* ezagutzea.**
- \* **Gozatzea eta ikastea.**

**Hala ere, bisiten edukiak gutxi gorabeherakoak dira, eta egokitu egiten dira bisitarien aurretiazko ezagutzen, adinaren, egiten ari diren ikasketen eta erakusten duten interesaren arabera.**

**Adinaren arabera unitate didaktikoak dituzte.**



# atzeko atetik



**Juan Luis LANDA**

MARRAZKILARIA

Pertsonaia historiko bat ondorengo belaunaldiei transmititzerakoan, izugarrizko garrantzia du egileak duen intenzioa eta helarazi nahi duen mezuak. Errenteria-Oreretako Mari Zozaiakoa sorgina zela idatzi zuen Inkisizioak Historiaren liburuan. Aurpegia eta izaera ematea egoki zitzaion Landari, eta horrela ikusi zuen:



**Ikerketa baten arabera, inteligentzia moldagarria dela eta inteligentzia finkoa dela pentsatzen dutenen arteko alde handiena akatsen aurrean erantzuteko modua da. Finkoa dela pentsatzen dutenek ez dute akatsetatik ikasteko aukera baliatzen.**

## Mari Zozaiakoa, “sorgina”



# Udaberrian, **ETXEAN HEZITzen** laguntzeko aldizkari berria



Lehenengo aldizkaria etxean DOAN jaso nahi baduzu,  
bidali mezua zure izen-abizenak eta helbidea osoarekin.  
[hikhasi@hikhasi.com](mailto:hikhasi@hikhasi.com)



# IRRJEN LAGUNAK KLUBA

EGUBERRI HAUTAN  
OPARITU IRRIA,  
URTE OSORAKO  
EGUZKIA!

EGIN IRRIA ALDIZKARIAREN  
URTEBETEKO HARPIDETZA  
ETA JASO KLUBEKO  
MOTXILA HAU OPARI!



HIK HASI ALDIZKARIKO IRAKURLEA  
IZATEAGATIK, IRRJEN LAGUNAK KLUBAK  
ESKAITZA BEREZIA LUZATU NAHI DIZU  
EGUBERRI HAUTAN.

\* Izakinak agortu arte

**hh**  
hik hasi



\* HARPIDETZA URTEAN 45€ (10 ALE)

\* HARPIDETZEKO DEITU  
(0034) 902 820 806 TELEFONORA.  
KODEA: HIK HASI

\* MOTXILA PAKETE POSTAL BIDEZ EDO ETA  
ELKARREN DENDA BATEAN JASOTZEKO AUKERA

\* IRRIA ALDIZKARIA HILERO JASOKO DUZU  
ETKEAN (URTEAN 10 ALE)

\* IRRJEN LAGUNAK KLUBEKO TXARTELA JASOKO  
DUZU, ZOKKETETAN PARTE HARTZEKO ETA  
DESKONTUAK JASOTZEKO BAUO DU.



PROMOZIOAREN EFE MUGA  
2012KO URTARRILAK 8!